ASTEAZKENA, 2023KO UZTAILAREN 12A • XXI. URTEA • 6.228 ZENBAKIA • BERRIA.EUS

PREZIOA: 1,55 EURO

# berria



**Karabela portugesa marmokak atzeman dituzte Gipuzkoan eta Lapurdin, eta adi ibiltzeko eskatu dute**

EUSKAL HERRIA • 7



**Issoire.** Bilbao helmugara sartzen, Zimmermannen aurretik. MARTIN DIVISEK / EFE

# GARAIPEN HANDIA LORTU DU BILBAOK

**Euskal Herriko abiatzean lortu ezin izan zuen etapa garaipena erdietsi du Pello Bilbaok Tourreko 10. etapan; Gino Maederri, Suitzako itzulian istripuz hil zen taldekideari, eskaini dio**

KIROLA • 14

# Legeak euskaraz lan egiteko berme guztiak ematen ditu, udalen arabera

*Konstituzionalak EAEko udal legean ezeztatu duen artikuluak inor ez zuela baztertzen nabarmendu dute Oñatiko, Zarauzko eta Munitibarko udaletatik*

EUSKAL HERRIA • 5

## Etxeak berritzeko Europako Funtsa osatzeko eskatu dio eraikuntza sektoreak Eusko Jaurlaritzari

Next Funtsetako 130 milioiak oso motz geratu dira, eta diru laguntzak amaitu izanak lan asko kolokan utzi ditu

EKONOMIA • 9

## Auto elektrikoen eta baterien eskaria betetzeko ez dagoela mineral nahikorik ohartarazi dute

Energiaren Nazioarteko Agentziaren ustez, meategi gehiago behar dira energia trantsiziorako bidean

EKONOMIA • 10



**Sanferminak. Festa betea umeentzat**

UDAGIRO • 26

JAGOBA MANTEROLA / FOKU

## Euskal erabiltzaileen bilaketei Googlek erdarazko erantzuna ematen diela esan du Puntueus behatokiak

EUSKAL HERRIA • 6

## *Bilboko museoak, turisten jopuntu*

Sartu-irtenak etenik gabeak dira Guggenheimen eta Arte Ederren Museoan

UDAGIRO • 25

Generalitateak eta Madrilek elkarrizketak hasi zituztenetik lehen aldiz egingo dituzte Espainiako Gorteetarako bozak Katalunian. Gakoetako bat izango da ikustea abstentzioak independentistei botoak galaraziko ote dizkien berriro, udal hauteskundeetan gertatu bezala.

# Prozesuaren osteko isla



Junqueras ERCko burua, Aragones Generalitateko presidentea, eta Jorda eta Rufian Espainiako Kongresurako ERCren hautagaiak.
ANDREU DALMAU / EFE

**Gorka Berasategi Otamendi**

Prozesu independentistaren aparrak baretuago daudela bozkatuko dute Kataluniako herritarrek hilaren 23an egitekoak diren Espainiako Gorteetarako hauteskundeetan. 2019an, giroa gori-gori zegoen: urte horretan epaitu eta kondenatu zituzten bederatzi buruzagi independentista autodeterminazio erreferendum bat antolatzeagatik. Independentismoak inoizko emaitzarik onenak lortu zituen Kongresuan. Baina egoera bestelakoa da orain. Batetik, apalduta dagoelako gatazka politikoaren tentsioa, Generalitatearen eta Espainiako Gobernuaren arteko elkarrizketen ondorioz, besteak beste. Eta, bestetik, Voxek sekula baino aukera argiagoa duelako Espainiako gobernabidean esku hartzeko –izan PPrekin osatutako koalizio gobernu batean ala izan PP kanpotik babestuta–.

Historikoki, Espainiako Gorteetarako hauteskundeak ez dira joko zelairik oparoena izaten Kataluniako alderdi independentistentzat. Neurri handi batean, «abstentzio diferentzialak» eta «boto dualak» azaldu dute joera hori iraganean, Berta Barbet politologo eta Pompeu Fabra Unibertsitateko irakasleak azaldu duenez.

Boto dualak erreferentzia egiten dio Katalunian nagusi den alderdi abertzaleko boto emaileen parte handi baten portaerari. «Autonomikoetan, pisu handia izaten zuen Generalitateko presidentea zein izatea nahi zuten, eta estatukoetan, Espainiako presidente kargurako nor nahiago zuten». Hauteskundeen arabera botoaren logika aldatzen duten herritarren kopurua murriztu egin zen, ordea, prozesu independentista puri-purian egon zen urteetan, Barbetek zehaztu duenez. «Orain, prozesuaren osteko fase batean gaude, nahiz eta joera horrek ez duen izango prozesuaren aurretik bezainbesteko indarrik», politologoaren arabera.

Gauza bera gertatzen da abstentzio diferentzialarekin, Barbeten ustez. «Espainiarragoa sentitzen den biztanleriaren parte handi batek ez zuen bozkatzen Kataluniako hauteskundeetan, eta kataluniarragoa sentitzen den biztanleriaren parte txiki batek ez zuen bozkatzen estatukoetan». Joera hori desagertu egin zen ia, prozesu independentistaren eraginez. Barbetek esan du baliteke ela orain berriro agertzea. «Are arrazoi gehiagorekin, ikusita independentismoaren sektore batzuek abstentzioaren aldeko kanpaina egiten ari direla».

Alderdi politiko independentistekin atsekabetuta dagoen sektore bat baden erakusgarri da ANC Biltzar Nazional Katalanak hurrengo Kataluniako Parlamenturako hauteskundeetan zerrenda propio bat aurkezteko proiektua iragarri izana. Dena den, erakunde horretako bazkideek abstentzioaren edo boto baliogabearen alde egitea baztertu zuten joan den astean, bozketa batean.

CUP ezkertiarreko oinarriak ere abstentziotik urrundu ziren, Espainiako Gorteetarako hauteskundeetan aurkeztearen alde eginda –%61eko babesa izan zuen erabakiak–.

Ikusi beharko da abstentzioak botoak galaraziko ote dizkien alderdi independentistei Espainiako Gorteetarako bozetan, udal bozetan bezala. «Galdera da bozkatzera ez joatea motibazio faltaren ondorio izan ote zen, ala protesta keinu bat. Motibazio falta izan bazen, litekeena da independentismoa oraingoan gehiago mobilizatzea, gehiago baitago jokoan. Baina arrazoia protesta izan bada, litekeena da alderdi independentisten kalterako izatea».



**«Litekeena da independentismoa oraingoan gehiago mobilizatzea, gehiago baitago jokoan»**

**«Galdera da [udal bozetan] bozkatzera ez joatea motibazio faltaren ondorio izan ote zen, edo protesta keinu bat»**

**Berta Barbet**
Politologo eta irakaslea

## Alderdien erronkak

Kataluniako alderdi politiko guztiek izango dute asko jokoan hilaren 23an, nork bere erara. Gainera, Madrilen ordezkaritza lortzetik harago, emaitzak erreferentzia izango dira Kataluniako Parlamenturako hurrengo hauteskundeei begira; bereziki, indar independentistentzat.

ERC Esquerra Rebulicana izan zen lehen alderdia Espainiako Gorteetarako aurreko bozetan, eta postu horri eustea izango du helburu, maiatzeko udal hauteskundeetan 300.000 boto galdu baditu ere. Espainiako Gobernuarekin 2021ean abiatu zuen elkarrizketa mahaiaren aldeko estrategia berretsi nahi du, eta Kongresuan gehiengoak osatzeko erabakigarri izan aurrerantzean ere.

JxC Junts Per Catalunyaren xedea, berriz, ERCri aurrea hartzea da. Eskuineko alderdi independentista oso kritiko agertu da elkarrizketa mahaiaren aldeko ERCren apustuarekin, eta Madrilekin «konfrontazio» estrategia bati jarraitzea proposatzen du. Kongresuan eragin ahalik eta handiena izatea du helburu, Pedro Sanchez Espainiako Gobernuko jarduneko presidente eta PSOEren hautagaiari «ahalik eta prezio garestiena» jartzeko hark presidente izateko aukera badu.

Inkestek PSC Kataluniako Sozialisten Alderdia daukate faboritotzat. Baina ez du nahikoa izango irabaztearekin. Sanchez Moncloara eramateko ezinbestekoa du diputatu kopuru handi bat lortzea, iragarpenek dioten moduan PP lehen indarra izango bada estatuko beste erkidego askotan.

Sumarreko presidentegai Yolanda Diazek Kataluniarako autodeterminazio erreferendum bat babestea baztertu zuen joan den

## Eztabaidak %39ko ikusle kuota izan du

Pedro Sanchezen eta Alberto Nuñez Feijooren arteko aurrez aurreko eztabaidak %39,2ko ikusle kuota lortu zuen Euskal Autonomia Erkidegoan. Katalunian, berriz, %36,8koa izan zen; eta Galizian, %58,2koa. Espainiako Estatuko datuei erreparatuta, %46,5eko ikusle kuota izan zuen, eta, batez beste, 5,9 milioi herritarrek ikusi zuten. Horrek esan nahi du hauteskunde eztabaida batek 1993tik Espainian izan duen ikusle kopururik apalena dela. Orduko hartan, Felipe Gonzalez (PSOE) eta Jose Maria Aznar (PP) aritu ziren aurrez aurre, eta %24,6k ikusi zuten tarteren batean.




# 23

**INDEPENDENTISTEK ZENBAT AULKI LORTU ZITUZTEN AZKEN BOZETAN KONGRESURAKO**

Kataluniako indar independentistek inoizko emaitzarik onenak eskuratu zituzten Espainiako Kongresurako azken bozetan. ERCk hamahiru ordezkari lortu zituen (botoen %3,64); JxCk, zortzi (%2,21); eta CUPek, berriz, bi (%1,03). Senatuan, errepublikanoek 11 aulki lortu zituzten, eta JxCk, hiru.

astean, En Comu Podemek defendatzen duenaren kontra, eta ikusi beharko da adierazpen horiek zenbateraino diren oztopo Katalunian ezkerreko botoa biltzeko.

CUPek, berriz, eskuin muturraren gorakadari aurre egitea du asmo, baita Sanchezen «politika txarrak» eragoztea eta independentismoaren barruko ezinegonari erantzutea ere. Hirugarren ordezkaria lortu nahi du Gironan.

PPk eta Voxek, bestalde, «gaztelaniaren defentsa» dute hauteskundeen kanpainako aldarri nagusietako bat.

# Pilula urdina Espainiako presidentetzarako

## Sanchezek eta Nuñez Feijook aurrez aurreko trabatua izan dute

**Jon O. Urain**

Joan den astean, *Matrix* filma eman zuten Espainiako telebista kate batean. Ikusia dutenek ongi ezagutuko dute eszena hau: Morpheusek pilula gorria eta urdina aurkezten dizkio Neori. Gorriak errealitate gordina ordezkatzen du: gatazka, etorkizun zalantzatia, egia. Askatasuna. Urdina, berriz, fikzio bateranzko atea da, *Matrix*-ek ematen duen ezjakintasun barea. Eraikitako gezur bat, eroso bizitzeko modukoa. «Ezjakintasuna zoriona da», laburbiltzen du Cypherrek, traizioaren akordio betean. Filma 1999koa da, baina gaurkotasun bizikoa dirudi egia-ostearen eta negazionismoaren garaian. *Matrix*-en espirituari erantzuten dio, adibidez, klima larrialdiaren eta indarkeria matxistaren ukazioaren ongarriaren gainean loratutako eskuin muturrak; aldaketa sozialei, pandemiei eta arazo globalei ez ikusiarena egitea, ezer aldatu ez dadin.

Herenegun, Espainiako Gobernuko presidente izateko hautagaien arteko debatean, Alberto Nuñez Feijoo PPko presidentegaiak pilula urdina proposatu zuen, eta bere neurrira eraikitako errealitate bat aurkeztu: esan zuen Genero Indarkeriaren Aurkako Espainiako Ituna babestu ez zuen bakarra Podemos izan zela —Vox izan zen—, datu ekonomiko batzuk oker eman zituen, eta Pedro Sanchez PSOEko presidentegaiari aurpegiratu zion Jose Luis Rodriguez Zapatero Espainiako presidente ohia bera ere ez zela ausartu EH Bildurekin gobernatzera —nahiz eta Zapaterok gobernatu zuen urteetan EH Bildu ez zen existitzen—. «Hori ez da egia» izan zen Sanchezek debatearen hasieran gehien errepikatu zuen esaldia. Espainiako politikaren egia-ostean, 2023ko debatean, ETA eta Xabier Garcia Gaztelu *Txapote* presoa ziren hizketagai, Bildu dozena bat aldiz aipatzeaz gain.




**Sanchez eta Nuñez Feijoo, herenegun gaueko eztabaida hasi aurretik.** J. M. / EFE

Gutxienekoa da, ordea. Debate batean, gehiago axola du zer transmititzen den, zer esaten den baino. Eta, hasiera-hasieratik ikusi zen Nuñez Feijoo erasora irten zela; arlo ekonomikoan Sanchez estututa, erreplikarako tarte eskasa utzita, iniziatiba hartuta. «Ukrainako gerra hasi zenean, inflazioa %2koa zen!», zioen Sanchezek. Baina George Lakoffek azaldua du *Don't Think of an Elephant* (Ez pentsatu elefante batean) liburuan: «Mito batzuk ilustraziotik datoz. Lehenak horrela dio: egiak libre egingo gaituela. Hau da, pertsonak gizaki arrazionalak direnez, haiek informatzera mugatzen bagara ondorio zuzenak aterako dituzte». Baina ez: «Pertsonek markoetan pentsatzen dute (...). Egia onar dadin, jendearen markoetan sartu behar da. Gertakariak ez badatoz bat markoarekin, markoak iraun egiten du, eta gertakariek errebotatu». Sanchez datu makroekonomikoekin tematu zen, datuen borrokak pasio gutxi pizten duen arren, eta Feijoo aiseago mugitu zen patrikako diruaren logikan.

**Nuñez Feijook erakutsi zuen PPk amortizatua duela Voxekin itunak egiteak izan dezakeen kostu politikoa**

PPkoak ez zuen askoz gehiago behar izan, eta apenas eman zuen egin nahi dituenen berri: Memoria Demokratikoko Legea indargabetzea eta odol delituak dituztenak hauteskundeetara aurkez daitezen debekatzea, besteak beste.

### PP eta Vox, «gauza bera»

Eztabaida ekonomikoak noraezean utzita, Sanchezek gaueko helbururik behinenari ekin zion: PP eskuin muturrarekin batera doalako ideia nabarmentzea: «PP eta Vox gauza bera dira», errepikatu zuen Sanchezek. Debatean burua altxatzeko balio izan zion indarkeria matxistari buruzko eztabaidak, Feijoori egotzita eskuin muturrari «amore» eman izana. Ordurako lokatza prest zeukan Feijook, *Soilik baietz da baietz* legea baliatuta kaleratu dituzten erasotzaileak hizpidera ekarrita: «Matxista bortxatzaile horiek zuregatik daude kalean».

Baina Sanchez hainbeste tematu zen, inplizituki nahi gabeko mezu batzuk transmititzeko arriskua hartu baitzuen: batetik, Voxen aurka egoteaz haragoko proiekturik ez duela datozen urteetarako; bestetik, PPri egindako kritika gehienak ez zirela izan propio PPren jokabide politikoei buruzkoak, popularrek eskuin muturrarekin duten jarrerari buruzkoak baizik. «Indarkeria matxista gaitzesten ez duen alderdi matxista batekin akordioak egiten ari zarete», zioen Sanchezek, arretagunea PPren itunetan eta bazkideetan jarrita, eta ez hainbeste PPren neurri edo politiketan. Feijook berak ere erakutsi zuen PPk amortizatua duela Voxekin itunak egiteak izan dezakeen kostu politikoa, eskuin muturra zurituta: «Voxekin eta edozein alderdi konstituzionalistarekin hitz egingo dut».

Sanchezek, nolabait, zentralitatea oparitu zion PPri. Azken minutua da horren adibiderik onena: Sanchezek, bere gobernuaren lorpenak errepasatzeko, Feijook baliogabetu dezakeen guztiari erreparatu zion, beldurraren mamua haizatuta; Feijook, berriz, mezu autozentratua zabaldu zuen, «muturren beharrik» izango ez duen «gehiengo indartsu» bat osatzeko. Funtsean, Sanchezek, arretarik handiena Voxen jarrita, PSOErekin partekatutako gutasun politiko batean sartu zuen PP; Carl Schmittek demokrazia aztertzean aipatzen zuen inklusio/esklusio harremanean, Vox zen kanpoan utzi beharrekoa... PP arerio legitimo gisa utzita.

LAUDIO ikastola

**IKT teknikari lanpostu eskaintza**

Laudio Ikastolak IKT teknikari aritzeko ordezkapen kontratua eskaintzen du. Interesdunek lanpostuaren zereginetan aritzeko behar besteko prestakuntza bermatzen duen Goi Mailako Heziketa Zikloa izan beharko dute, eta C1 euskara maila egiaztatzen duen titulazioa.

*Izen ematea ikastolaren web guneko lan-poltsa atalaren bidez, **www.laudioikastola.eus**, bideratu beharko da uztailaren 18ra arte. Berton lan deialdiaren ezaugarriak kontsulta daitezke.*

## ETAren biktimek errespetua eskatu diete alderdiei

**GASTEIZ •** Covitek, Fernando Buesa fundazioak eta ETAren hainbat biktimak alderdiei eskatu diete ez erabiltzeko Xabier Garcia Gaztelu presoari erreferentzia egiten dion *Que te vote Txapote* leloa: «Errespetua eskatzen dugu gure senideen memoriarentzat». 22 sinatzaileen artean daude Naiara Zamarreño eta Mikel Iruretagoiena.



**«Ez dakit nolakoak izango diren emaitzak, baina presidente izan nahi duenak gugana etorri beharko du»**

**Aitor Esteban**
EAJren Kongresurako hautagaia

## Arnaldo Otegik «erabakigarritzat» jo du EH Bildu

**BILBO •** EH Bilduko koordinatzaile nagusi Arnaldo Otegiren esanetan, ERC eta EH Bildu bera izan ziren PSOEko eta PPko hautagaien arteko eztabaidako irabazle. «Denek ulertzen dute Espainiako Estatuan eta gure herri eta nazioetan ezkerreko indar subiranistak garela erabakigarriak», azaldu du Forum Nueva Economian egindako adierazpenetan.

Kongresurako hautagai Mertxe Aizpuruak, berriz, «lokatzetatik atera» nahi izan du, eta adierazi du «agerikoa» dela koalizioak akordioak egin dituela Espainiako Gobernuarekin, nahiz eta PSOE horiek ezkutatzen saiatu: «Jendeak ikusi du zer egin dugun, jende guztiak daki; itunak publikoak eta gardenak dira». Are gehiago, azaldu du itun horiek «hobekuntzak» eskuratzeko izan direla.

## «Demokraziari eustea» jarri du helburu Romerok

**ANDOAIN •** Espainiako Kongresurako PSE-EEren hautagai Rafaela Romerok mobilizatzera deitu du uztailaren 23rako, «demokraziari eusteko» eta «Espainiako eta Euskadiko okerrena» baztertzeko. Hala, lehentasuntzat jo du politika publikoak «erdigunean» jartzea; hala nola berdintasun gaiak eta klima larrialdia.

# Berdintasuna «ezinbesteko ardatza» da Sumarrentzat

Lorena Vicioso Kongresurako Bizkaiko bigarren hautagaiak esan du feminismoa nahitaezkoa dela Diazen koalizioarentzat

**Xabier Martin**

Mugimendu feministaren historiako efemeride bat gogoratuz hasi zuen hitzaldia Sumarren Espainiako Senaturako Bizkaiko bigarren hautagai Carmen Muñozek atzo, Basaurin (Bizkaia): «Basaurin gaude, eta arrazoi askorengatik egon gintezke hemen, baina zuek zoriontzeko etorri gara. Benetan harro egon behar duzue, emakumeen bizitza aldatu zuen gertaera historiko bat izan baitzen hemen».

Duela berrogei urte, Espainiako Auzitegi Gorenak kolokan jarri zuen abortatzeko eskubidea, baliogabetu egin baitzuen abortatua zuen Basauriko emakume talde bat absolbitzea ebatzi zuen aurreko epai bat. «Basauriko Hamaikek merezia dute herrian beren omenezko plaka bat edukitzea, nahiz eta agian jende askok ez jakin», esplikatu zuen Muñozek.

Izan ere, Sumarrek uste du emakumeen lorpen asko arriskuan daudela eskuin muturreko politikak direla eta. «Orain, eskuina gure eskubideak ukatzen entzuten dugun honetan –ez bakarrik lortutakoak, baita lortzeko ditugunak ere–, aukera dugu geldiarazteko, gure botoaren bidez», adierazi zuen Yolanda Diaz Madrilgo zerrendaburu duen koalizioko hautagaiak: «Asko dugu jokoan: gure gorputzen jabe izateko eskubidea, nahi duguna maitatzeko eskubidea, gogoak ematen digun bezala janzteko eskubidea, lan duina eta prekarizatu gabea izatea, zaintzak erantzunkidetasunaren ondorio izateko eskubidea, independentzia ekonomikoa edukitzea, lan munduan dagokigun lekua hartzeko eskubidea, eta, batez ere, gure bizitza eta duintasuna».

### Minutu bateko isilunerik ez

Lorena Vicioso Kongresurako Bizkaiko bigarren hautagaiak ere hartu zuen hitza mezu feminista indartzeko, eta Espainian eratzen ari diren PP-Vox gobernuak salatzeko. «Berdintasun sailak ezabatzen dituzte, eta, hilketak eta erasoak daudenean, minutu bateko isiluneak kentzen dituzte», abisu eman zuen.

Gainera, zehaztu zuen indarkeria matxistaren ondorio dramatikoak gertatzen diren bitartean erakusten dutela jokabide hori: «Hamar hilketa hamar egunean, azken biak azken bi egunetan: oso garai kritikoan gaude, eta Sumarrek ez du nahi indarkeria matxista ukatzen duen gobernu bat PPrekin eta Voxekin, horrek arriskuan jartzen baitu gure bizitza, arriskuan jartzen baitu emakumeen bizitza».




**Sumarrek Basaurin egindako ekitaldia, atzo.** BERRIA

Viciosok Sumarren proposamen feminista zehaztu zuen, eta horrek gizarte bidezkoagoa ekarriko duela azaldu: «Feminismoak berdintasuna dakar, gure etxeko leihotik harago begiratzera bultzatzen gaitu, denok ez baikara zuriak, denok ez baikara heterosexualak eta denok ez baititugu aukera berak». Jendea jaiolekuak, arrazak eta sexu jarrerak eragindako ezberdintasunek «baldintzatuta» bizi dela azaldu zuen Sumarreko diputatugaiak. «Sumarrek proposatzen du ahulenen eskubideak politika publikoen erdian jartzea , ekoizpen eredua aldatzea eta aberastasuna banatzea, ondasun komunak berreskuratzeko, demokratizatzeko, ongizate estatua indartzeko eta zainketen iraultza egiteko».

**«Sumarrek proposatzen du ahulenen eskubideak politika publikoen erdian jartzea eta aberastasuna banatzea»**

**Lorena Vicioso**
Sumarreko Bizkaiko diputatugaia

Horregatik guztiagatik, Sumarren alde bozkatzeko eskatu zuen Vicioso hautagaiak, horrek «aldaketa feministaren alde» bozkatzea dakarrelakoan, baita «batuketa» ere. Uztailaren 23ko hauteskundeen ondotik, Espainiako Gobernuak emakumezko lehen presidente izango duela erantsi zuen: «Egin dezagun presidente Yolanda Diaz».

Hain zuzen, azken orduetan, koalizioaren Madrilgo zerrendaburu Diazek hizpide izan du PSOEko eta PPko presidentegaiek, hau da, Pedro Sanchezek eta Alberto Nuñez Feijook telebistan izan duten eztabaida gogorra. Sumarreko buruaren ustez, bi gizon horien arteko eztabaidan «ez da proposamenik egon arazoei soluziobideak emateko». «Zarataz» betetako eztabaida horretan ez da islatu, Diazen iduriko, egungo Espainia: «Espainia beste gauza bat da; beste era batera hitz egin behar dugu; geroa behar dugu», esan du.

# 6.2 artikulua: «berme» guztiz

Espainiako Auzitegi Konstituzionalak EAEko udal legean ezeztatu duen artikuluak zedarritutako lege esparruan arazorik gabe aritu dira euskaraz diharduten udalak • UEMAko udalak dira adibide argia

Arantxa Iraola



UEMAko ordezkariak, martxoan Azpeitian egin zuten agerraldian. JON URBE / FOKU

Espainiako Auzitegi Konstituzionalak, EAEko Auzitegi Nagusiak egindako itaun bati erantzunez, lehengo astean eman zuen ebazpena: ezeztatu egin du EAEko udal legearen 6.2 artikulua. Euskaraz jarduteko era ematen die udalei artikulu horrek, barne funtzionamendurako agiriak-eta euskara hutsean egitekoa. Urteak daramatzate hainbat udalek lege esparru horren abaroan funtzionatzen, inolako gorabeherarik ez du eragin, eta kezka handia piztu du orain Konstituzionalaren epaiak. UEMA udalerri euskaldunen mankomunitateko udalak aitzindari dira euskaraz funtzionatzeko ahaleginetan; urteak daramatzate horretarako urratsak egiten, eta bertako hautetsiek argi dute: artikuluak «berme» guztiekin ahalbidetzen du euskaraz funtzionatzea, inoren hizkuntza eskubideak urratu gabe.

Auziaren muina ulertze aldera, komeni da ezeztatu den artikuluak zer esaten duen ondo azaltzea. Udal legearen zati horren pasarte esanguratsuenak, horra. Ahalmen bat baimentzen du aurrena: «Toki erakundeetako organoen deialdiak, gai zerrendak, mozioak, boto partikularrak, erabaki proposamenak, informazio batzordeen irizpenak, erabakiak eta aktak euskaraz idatzi ahal izango dira». Ahalmen hori gauzatu ahal izateko, baldintza bat ezartzen du gero: «Ahalmen hori baliatu ahal izango da aipatu berri diren kasuetan, baldin eta, toki-erakundearen barruan, euskaraz ez dakiela behar bezala alegatzen duen ezein kideren eskubideak urratzen ez badira».

UEMAn 101 udalerri batzen dira gaur egun, Hego Euskal Herri osokoak. Konstituzionalaren epaiaren berri izan eta berehala, joan den astean, agerraldi jendetsu bat egin zuten Usurbilen (Gipuzkoa), eta euskaraz funtzionatzen jarraitzeko asmoa azaldu zuten udaletako hautetsiek, artikuluaren kontrako ebazpena «interpretazio erabat trakestu baten» emaitza dela salatuta. Mezu argia ozendu zuten: euskara hutsean jarduteko urratsak eginda ere, bermatzen dira hizkuntza eskubideak: denenak. «Hizkuntza eskubideak UEMAko udaletan errespetatzen dira gehien».

## «Ofizialtasun» bera dute bi hizkuntzek, Zupiriaren arabera

**Eusko Jaurlaritzako Kultura sailburu Bingen Zupiriak hizpide izan zuen atzo Konstituzionalaren ebazpena. Ezeztatutako udal legearen artikuluak euskarari eta gaztelaniari «ofizialtasun maila bera» ematen diela azaldu zuen, eta ezin dela hartu horregatik konstituzioaren aurkakotzat. Esan zuen Jaurlaritzak «apustu argia» duela hizkuntza eskubideen alde egiteko, eta euskara ere lan hizkuntza gisara sustatzeko.**

### Babesa

Euskaraz funtzionatzeko ahaleginak udal legea baino lehenagokoak dira, baina Espainiako agintarien partetik arazoak eta trabak izan dituzte usu. EAErako Espainiako Gobernuko ordezkari Carlos Urkijok, esaterako, 2012-2016 urteen artean auzibide ugari abiatu zituen euskarazko aktak egiten zituzten udalen aurka, eta 2016an Eusko Legebiltzarrean udal legea onartu zenetik horrek emandako «babes juridikoa» sentitu dutela esaten dute UEMAko udal ordezkariek. Euskara zinegotzia da Zarautzen Irune Urbieta, EAJko ordezkaria. «Udalak, 2016a baino lehen ere, euskaraz funtzionatzen zuen. Udalerri euskalduna da gurea, eta herriko errealitate soziolinguistikoa islatzen du gure udalaren jardunak. Hartutako bide horren errekonozimendua ere bada 2016ko legea», esplikatu du. Argi du lege esparru egokia ematen duela. «Jarduteko modu honekin, guztion hizkuntza eskubideak bermatzen ditugu».

> **«Baten batek erdaraz aritu behar badu, bitartekoak jartzen ditugu haren eskubideak bermatzeko»**
> **Izaro Elorza**
> Oñatiko alkatea

> **«Udalerri euskalduna da gurea. Errealitate soziolinguistikoa islatzen du gure udalaren jardunak»**
> **Irune Urbieta**
> Zarauzko Euskara zinegotzia

> **«Kezka nagusia zera da: epaiaren arabera, orain arteko funtzionatzeko era ez da sartzen konstituzioan»**
> **Arkaitz Goikoetxea**
> Munitibarko alkatea

Izaro Elorza Oñatiko alkatea da, EH Bildukoa, eta berretsi du euskara hutsean funtzionatzeko irizpideak muga bat duela, argia: «Udalari euskara hutsean aritzeko aukera ematen dio, betiere ordezkari denek ulertzen badute euskara. Gainerakoan, baten batek erdaraz aritu behar badu ez duelako ulertzen, bitartekoak jartzen ditugu haren eskubideak bermatze aldera». Eta adibide zehatz bat jarri du. Oñatiko Udalean urteak daramatzate euskarazko aktak egiten, baina oraintxe eratu duten udalbatzarrean euskaraz moldatzen ez den zinegotzi bat dute, eta itzulpenaren bidea erabiliko dute hark agiriak uler ditzan. «Haren hizkuntza eskubideak bermatze aldera, zelan ez, itzulpen lanak egingo dira: hori bermatuta dago». Ezin da bestela jokatu: «Norbaitek euskara ulertzen ez badu, bermatu egin behar da gaztelaniazko itzulpena». Arkaitz Goikoetxea Munitibarko alkatea da (Bizkaia), EH Bildukoa. Udal legearen «txapel juridikoak» emandako babesa nabarmendu du hark ere. Eta bat dator: «arazorik» gabe jardun dute haren abaroan.

### Aurrera begirakoak

Goikoetxea kezkatuta dago sententziaren ondorioekin. «Kezka nagusia zera da: epai horren arabera, orain arteko funtzionatzeko era ez da sartzen konstituzioan». Elorzaren hitzetan ere, ezin ukatuzkoa da kezka: «Berriz ere epaitegietan hasiko ote garen». Baina ez atzera egiteko adinakoa: «Gure eskubideak defendatu behar ditugu, eta udalari dagokio herritarren eskubideak defendatzea eta pausoak ematea euskararen normalizazioan: guk hori oso argi daukagu, eta bitartekoak jarri behar ditugu urratsak egiteko». Bat dator Urbieta ere: udalek «ardura handia» daukate euskararen aurrerabideetan, «eta horretan eredugarri jokatu behar dute». Horrek daramatza Usurbilen azaldu zuten asmoa berrestera: «Euskaraz jarraituko dugu lanean».

# Puntueusek ondorioztatu du Googlek euskara baztertzen duela

Euskarak Interneten duen hedapenari buruzko datuak eman ditu Puntueus behatokiak: webguneen %14k dute edukiren bat euskaraz



**Puntueus fundazioaren aurkezpena, atzo goizean, Donostian.** GORKA RUBIO / FOKU

**Irati Urdalleta Lete** *Donostia*

Euskarak Interneten zer-nolako egoera duen ikertzea eta *.eus* domeinuaren joerak aztertzea. Horixe du helburu Puntueus behatokiak. Atzo eman zuten azken ikerketaren ondorioen berri Josu Waliño Puntueus fundazioko zuzendariak eta Lorea Arakistain Puntueus fundazioko marketin zuzendariak. Urtero egiten dute ikerketa hori, baina, aurten, zenbait berrikuntza txertatu dituzte: aztertu dute Googleren bilaketa zerbitzuek euskara diskriminatzen ote duten. Eta ondorioa argia izan da: ikusi dute euskara diskriminatzen dutela, gazteleraren mesedetan, eta, hori horrela, euskarak Interneten duen ikusgaitasuna galdu duela.

Hala azaldu du Waliñok: «Euskal erabiltzaileen bilaketei gaztelaniazko emaitzekin erantzuten die Googlek. Horrek ondorio larriak ditu, euskara baztertu, eta gazteleraz nabigatzera eramaten baititu erabiltzaileak, eta euskararen ikusgaitasuna murriztu». Orain, ikerketa sakonagoa egin asmo dute, «emaitzek euskal Interneten izan duten eragina neurtzeko eta hartu beharreko neurri zuzentzaileak aztertzeko».

Katalunian dago ikerketaren abiapuntua. Hain zuzen, Katalanaren Presentzia Digitalaren Aldeko Aliantza erakundeko koordinatzaile Albert Cuestak azaldu duenez, bilaketak egiteko orduan Googleren algoritmoak katalanaren ikusgaitasunean duen eragina aztertu dute, eta nabaritu dute 2022ko udaberritik gaztelerazko emaitzak lehenesten dituela, eta katalanez daudenak «zigortu». Hain zuzen ere, 639 webgune eleaniztun ikertu dituzte; hirutik bik katalanezko bisitak galdu dituzte.

Euskal Herriari dagokionez, ikerketa ez da hain sakona izan, baina antzeman dute «diskriminazioa». Hain zuzen ere, «Euskal Herriko termino esanguratsu batzuk» bilatu dituzte Googlen —esaterako, [Juan Mari ] Arzak eta San Mames— , eta ikusi dute Googlek katalanarekin duen jokaera bertsua daukala euskararekin ere, Waliñoren hitzetan: «Kasuen ia %60tan, lehen erantzuna gazteleraz izan da, eta, ondoren, euskaraz». Ikerketa «euskarazko testuinguru batean» egin dutela argitu du, Elgoibartik (Gipuzkoa) eta nabigatzailea euskaraz konfiguratuta. Hauxe Waliñok adierazitako ondorioa: «Arazo bat dugu. Googlek ez du ondo tratatzen euskara».

**Puntueusen arabera, Euskal Herriko gailuen %4 daude euskaraz konfiguratuta, orain dela bost urte halako bi**

Halaber, euskarazko Wikipediaren arduradunek ere nabaritu dute Googleren algoritmoaren aldaketa. Luistxo Fernandez Euskal Wikilarien Kultur Elkarteko lehendakariaren esanetan, bisita kopurua gero eta handiagoa da, baina jaitsiera ikusi dute hainbat alorretan: «Iaztik, trafikoa galtzen ari gara alor jakin batzuetan. Googletik bideratutako bilaketetan dago gakoa; oso argi daukagu».

Alabaina, beste batzuetan legez, euskarak Interneten duen presentzia datuekin neurtu dute. Azaldu dutenez, Euskal Herriko webguneen %14k daukate edukiren bat euskaraz. Kopurua handiagoa da *.eus* domeinua erabiltzen dutenen artean: %75ek argitaratzen dute euskarazko edukia. Alderaketa eginda: *.com* domeinua dutenen %8 aritzen dira euskaraz ere, eta *.es* domeinukoen %6. Gainera, gailuen konfigurazioari erreparatuta, duela bost urte —orduan neurtu zuten azkenengoz— Euskal Herriko gailuen %2 zeuden euskaraz konfiguratuta; orain, berriz, %4. Datua baikorragoa da erabiltzaile euskaldunen artean: %15ek dute gailua euskaraz.

## Gero eta hedatuago

Halaber, zehazki begiratu diote *.eus* domeinuari. 2021etik 2022ra, %9ko igoera izan zuen, eta, orotara, 14.266 webgunek dute domeinu hori. Fidelizazio tasa handia dutela ere ziurtatu dute, erabiltzaileen %89k berritu baitute. Datuak «oso onak» direla ondorioztatu dute. Izan ere, orokorrean, %2,5ekoa izan da hazkunde tasa, eta %70ekoa berritze tasa.

Xeheago aletu dute domeinuaren egoera. Banaketa geografikoari dagokionez, batez ere Gipuzkoan (%41) eta Bizkaian (%34) erabiltzen dute, eta %9 Euskal Herritik kanpokoak dira. Eta tipologiari erreparatuta, nagusiki enpresa pribatuak (%40) dira erabiltzaileak. Atzetik daude hezkuntza arlokoak (%9,6); kulturakoak (%9,6); norbanakoak (%9,4); eta erakunde publikoak (%9).



# Marmokekin adi ibiltzeko ohartarazi dute Gipuzkoa eta Lapurdiko kostaldean

## Karabela portugesaren ale ugari topatu dituzte Donostian, Zarautzen, Hondarribian eta Getarian batez ere • Larrialdietara deitzeko esan dute

**Irati Alvarez Malaxetxebarria**

Gipuzkoako eta Lapurdiko kostaldeko zenbait hondartzatan marmokek ziztatutako pertsona ugari artatu dituzte azken egunotan sorosleek, eta ale ugari topatu dituzte. Horregatik, adi ibiltzeko ohartarazi dute.

Donostiako Zurriola hondartzan *karabela portugesa* izeneko marmokaren zazpi ziztada artatu zituzten sorosleek atzo. Igandetik ari dira sorosleak hondartzak aztertzen, Gipuzkoako eta Lapurdiko kostan ugaritzen ari direla antzeman dutelako. Gipuzkoako beste hainbat hondartzatan ere ziztatu ditu bainulariak: Zarauzko, Getariako, Hondarribiko eta Donostiako Ondarretako hondartzetan izan dira karabela portugesaren ziztadak azken egunotan.

Lehen aleak igandean topatu zituzten Donostian, eta hiru pertsona artatu zituzten ziztadengatik; bi Ondarretako hondartzan eta beste bat Santa Klara uhartean. Horregatik, astelehenean bandera horia jarri zuten. Garbiketa ontziek ikuskapena egin eta marmokarik aurkitu ez zutenez, bandera berdea jarri zuten gero.

Hala ere, atzo goizean sorosleek bandera gorria jarri zuten, eta bainua hartzea debekatu zuten, artatutako zazpi ziztaden ondorioz. Bainatzen ari zirenak uretatik atera zituzten, udalak jakinarazi zuenez.

Marmoka itxura duen espezie hori Ozeano Bareko eta Indiako ozeanoko ur tropikal eta subtropikaletan eta Ozeano Atlantikoko Golkoko itsaslasterrean ibili ohi da. Baina, batzuetan, Euskal Herriko kostan ere agertzen da. Taldeka lekualdatzen da, itsasoaren azaletik mugituz, eta kolonia erara bizi da. Karabelaren ziztadak arriskutsuak eta oso mingarriak dira.

### Kostan, erne

Udal zerbitzuek eta sorosleek «oso erne» jarraitzen dute, marmokak bainu eremuetan daudenean atzemateko, eta herritarrei bainatzeko baldintzak betetzen direla komunikatzeko.

Zarautzen, marmokek pertsona bat ziztatu zuten igandean, eta astelehenean, itsasertzean, ale batzuk eta ziztada kasu batzuk ere atzeman zituzten, udaleko iturriek jakinarazi dutenez. Ondorioz, astelehenean egun osoan bandera gorria izan zuten. Atzo, bestalde, ale bakarra atzeman zutenez, bandera horia jarri zuten.

Donostiako Ondarretan ere agertu ziren marmokak atzo, eta bandera horia jarri zuten. Hondarribian eta Getarian bandera berdea zuten atzo goizean.

Lapurdin ere jakinarazi dute hainbat marmoka topatu dituztela. *Phisalia* pozoitsua da, eta ohartarazi dute aurkituz gero ez ukitzeko.

Protokoloari dagokionez, Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak jakinarazi du sorosleek marmokak bainu eremuan edo hondarretan ikusiz gero SOS Deietara abisatzeko. Ondoren, prebentzio neurriak hartuko dituzte aintzat hartuta zer espezie den, zenbat ale dauden, non agertu diren, eta bainu eremutik hurbil dauden ala ez.



**Donostiako Zurriola hondartzan bandera gorria atzo, marmokengatik.** J.E. / EFE

## %13,8

**OFIZIOZKO ABOKATUEN ZERBITZUEN IGOERA BIZKAIAN**

Bizkaian doako 29.260 justizia zerbitzu eman zituzten iaz, 2021ean baino %13,8 gehiago. Gehienak indarkeria matxistako kasuengatik izan ziren: 2.461. Bizkaiko Abokatuen Elkargoak eman ditu datu horiek. Bizkaian guztira 3.366 abokatu daude jardunean, eta haietatik 1.240 daude izena emanda doako zerbitzua emateko.

## %14

**ZENBAT IGOKO ZAIEN SOLDATA OFIZIOZKO ABOKATUEI**

Indarkeria matxistako auziengatik doako zerbitzua ematen duten ofiziozko abokatuei soldata igoko dietela iragarri zuen atzo Eusko Jaurlaritzak. Araba, Bizkai eta Gipuzkoako elkargoarekin %14ko igoera adostu du Jaurlaritzak. Prokuradoreekin soldata igoera bera negoziatzen ari da. Doako zerbitzuaren soldata igoera uztailaren 1etik aurrera jarriko da indarrean.

Ikasi kazetaritza lanbidea urtebetez BERRIAn!

KAZETARITZAn trebatzeko **sei** lanpostu eskaintzen ditu BERRIAk 2023-2024ko ikasturterako.

**Eskaintzen da:**

- Praktiketako lan kontratua, 2023ko irailean hasiko dena eta urtebete iraungo duena.
- BERRIAk Andoainen duen egoitza nagusian, edo Bilboko, Gasteizko, Iruñeko eta Baionako ordezkaritzetan lan egiteko aukera.

**Bete beharreko baldintzak:**

- Kazetaritza arloan lan egitea ahalbidetzen duen unibertsitate titulua izatea: ikasketak azken hiru urteetan amaitu izana.
- Euskara maila bikaina.
- Kontuan hartuko da aurrez kazetaritza arloan praktikak egin izana.

Deialdira aurkezteko epea **2023/07/17ra artekoa** izango da.
Interesa baduzu, bidali curriculuma ***gizabaliabideak@berriataldea.eus*** helbide elektronikora, 'KAPR_2023' erreferentzia zehaztuta.



Juan Jose Etxeberria, errektoretza talde berriarekin, atzoko ekitaldian. ARITZ LOIOLA / FOKU

# Eraldaketara deitu du Juan Jose Etxeberriak Deustuko errektore kargua hartzean

Deustuko Unibertsitatearen errektoreordetzak berrantolatu ditu, eta «ikuspegi transbertsala» izateko eskatu dio talde berriari

**Maite Asensio Lozano**

Lemazain berria du Deustuko Unibertsitateak: Juan Jose Etxeberria (Tolosa, Gipuzkoa, 1966), Zuzenbide Fakultateko irakaslea. Apirilean izendatu zuten errektore, Jose Maria Guiberten ordez, eta atzo hartu zuen kargua, Bilbon egindako ekitaldi batean. «Barne eraldaketa bat» abiatzera deitu zituen unibertsitateko kideak: «Gure unibertsitateak eraldatu egiten du, eta gure unibertsitatea eraldatu egiten da. Gu geu bizkor aldatzea beharrezkoa da gure bikaintasuna mantentzeko».

Eraldaketa premia horren seinale, errektoreordetza batzuk berrantolatu ditu Etxeberriak. Ikerketa eta Nazioartekotze errektoreordetzak bulego bakarrean elkartu ditu, baita Ikasketa eta Eraldaketa Digitaleko sailak ere. «Euskararekiko konpromisoaren» adierazle, Hizkuntza Politikak ere berariazko alor bat izango du, Donostiako campuseko errektoreorde Xabier Riezuren ardurapean.

Bestalde, zuzendari kudeatzaile lanetan jarraituko du Gonzalo Meseguerrek, eta idazkari nagusi karguan, Stella Solernouk. Aurpegi berrien artean, berriz, Aitziber Irigoras Durangoko alkate ohia dago; Unibertsitate Komunitateko errektoreorde arituko da. «Ikuspegi transbertsala» galdegin die Etxeberriak denei: «Fakultate guztiei entzun behar zaie, eta komunikazioa erraztu».

## Miravalles-El Redin eskolaren itunari eutsi behar zaiola berretsi du auzitegiak

**IRUÑEA •** Nafarroako Auzitegi Nagusiak behin-behinean ebatzi du Miravalles-El Redin eskola erlijiosoaren Batxilergoko itunari eutsi behar diola Nafarroako Gobernuak. Hezkuntza Departamentuak kendu egin zion ituna, LOMLOE legeari jarraikiz, ikasleak sexuaren arabera bereizteagatik. Auzitegiak ekainean jada geldiarazi zuen prozesua, ikastetxeari «konpondu ezinezko» kalterik ez eragiteko. Gobernuak helegitea jarri zion erabakiari, baina auzitegiak berretsi egin du.



Egurtzegiko etxea, Usurbilen. MATIA

## Usurbilgo bizikidetza egitasmo berria inauguratu dute Matiak eta erakundeek

**USURBIL •** Egurtzegiko bizikidetza proiektua inauguratu zuten atzo Matia Patronatuak, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Usurbilgo Udalak. Azken horrek zaintzaren inguruan egindako hausnarketaren ondorio da egitasmoa. Mendekotasuna duten adinekoentzako bizitoki bat izango da, baina etxebizitzen diseinua izango du, pribatutasuna bermatzeko. 127 lagun biziko dira bertan, 15-20 pertsonako bizikidetza unitatetan banatuta; eguneko zentro bat ere izango du.

## 646

**EUSKALTZAINDIAREN HIZTEGIAN GEHITU DITUZTEN FORMAK**

Euskaltzaindiaren Hiztegia eguneratu dute, eta 646 forma berri gehitu dituzte, eta 1.130 moldatu. Gehitu dituzten sarrera deigarri batzuk hauek dira: *joño*, *kieto*, *euskara gaizto*, *ostia txar* eta *dudan egon*. «Lehendik barruan zegoen informazioari ikusgarritasuna eman zaio eguneratze honetan. Adibideak ere berrikusi ditugu, batez ere berdintasunari dagozkionak», azaldu du Miriam Urkiak, hiztegiko arduradunak.

## Hilberriak



**Germán Urbina Bikandi**

*Eternala eta infinitua, infinitua eta eternala*
*horrelakoa zara, edo zinen,*
*edo hori uste genuen guk behintzat*

**Ilobak**

**Arrate, Xabi, Itsaso, Eider, Irati, Arrizen, Maider, Olatz, Unax, Ivàn, Garazi**

**Eskelak**

(0034) 943-30 40 30 • eskelak@bidera.eus

**Berria.eus/eskelak**

BERRIAlagunek eta BERRIAlagun harpidedunek %25 merkeago izango dituzte eskelak



Eraikin bateko fatxada birgaitzeko lanak, Deustu Bilboko auzoan. JAIZKI FONTANEDA / FOKU

# Etxeak berritzeko Europako Funtsa osa dezala eskatu dio eraikuntzak Jaurlaritzari

Diru laguntzak hain goiz agortu izanak lan asko kolokan utzi dituela ohartarazi dute sektoreko eragileek • 130 milioi euro bideratu zituen, eta oso motz gelditu dira

**Imanol Magro Eizmendi** *Bilbo*

Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako eraikuntza sektore osoak etxeak zaharberritzeko diru laguntzak handitzeko eskatu dio Eusko Jaurlaritzari. Ekainaren 19an Etxebizitza Sailak Europako Funtsetatik bideraturiko dirua eskatzeko leihatila itxi zuen, eta sektorea ezustean harrapatu zuen. Eraikuntzako eragileen arabera, eskaera pila bat gelditu dira bidean, eta publikoki eskatu dute Jaurlaritzak aurrekontuetatik dirua bideratu dezala horiek asetzeko. Ez dute kopuru zehatzik eman, baina ulertarazi dute agian Europatik iritsitakoa halako hiru beharko litzatekeela.

Arabako, Gipuzkoako eta Bizkaiko eraikuntza patronalek duela bi aste egin zuten eskaera, eta atzo, besteak beste, hiru lurraldeetako aparejadore elkargoak, Hego Euskal Herriko arkitektoen elkartea eta Bizkaiko finka administratzaileen zein ingeniarien elkartea gehitu zitzaizkien. Eraikuntza sektore osoa elkartu da bultza egin eta Jaurlaritzari txorrota ireki dezala eskatzeko. Ireki bainoago, ez dezala itxi erregutu zioten Bilbon eginiko agerraldi bateratuan, dagoen «gizarte eskaera zabalari» erantzun eta laguntzen etenak sor ditzakeen kalteak eragozteko.

**Aurrekontuetatik dirua bideratu dezala eskatu diote Jaurlaritzari, Europako laguntzen baldintza beretan**

**Bizkaiko Finken Administratzaileen Elkargoko buruaren ustez, laguntza hirukoiztu beharko litzateke**

Eusko Jaurlaritzak 130 milioi euro bideratu zituen eraikinak zaharberritzeko, Europako Funtsetatik jasotako diruaren %7. Etxeen eraginkortasun energetikoa hobetu eta eraikuntza sektorearentzako lankarga ziurtatzeko neurria zen. Jaurlaritzak, baina, ekainaren 19an itxi zuen eskaerak jasotzeko leihatila, onarturiko 15.600 egitasmoei erantzuteko diru poltsa osoa beharko zuela argudiatuz. Dagoeneko 59,8 milioi euroren eskaerak onartuak ditu, eta ziurtzat jo du aztertzeke dituen egitasmoekin beste 70ak banatuko dituela. Alegia, jasotako dirua agortu dela. Espero baino goizago agortu ere, eraikuntza sektoreak zehaztu zuenez, hasiera batean 2026ra arteko proiektuak finantzatzea aurreikusten zelako.

Baina zenbat diru gehiago beharko litzateke? Pablo Abascal Bizkaiko Finken Administratzaileen Elkargoko presidenteak esan zuen emandakoa halako hiru beharko litzakeela –hura izan zen bozeramailea agerraldian–, baina gero zehaztu zuen bere kasa eginiko kalkulu bizkor bat zela. Dena den, badirudi aurreko poltsa pixka bat osatzea baino askoz gehiago nahi duela sektoreak.

## 40.000 euro arteko kaltea

Jendaurreko eskaera ofiziala izan zen, baina, Abascalek zehaztu zuenez, dagoeneko hartu-emanetan dago Mario Ioldi Jaurlaritzako Etxebizitzako Plangintzaren eta Prozesu Eragileen zuzendariarekin. Hark jakinarazi zion Espainiako erkidego autonomoetan erabiltzen ez den dirua berriz banatuko dela, eta hortik funts gehiago jasotzea espero duela Jaurlaritzak. Esaterako, Kantabrian zaharberritzeko funtseko diruaren %6 adjudikatu dute bakarrik, eta Asturiasen %7. Sektoreak, baina, harago doan konpromiso bat nahi du, eta birbanaketa horri itxaron gabe poltsa bete dadila.

Abascalek emaniko datuen arabera, hainbat etxetako auzokideek 40.000 euro arteko inbertsioak egin dituzte diru laguntzak lortzeko beharrezkoak diren txostenak osatzeko eta haiek gal ditzakete. Era berean, nabarmendu zuen etxeen zaharberritzeetan inbertituriko diruaren zati handi bat zergen bidetik itzultzen dela kutxa publikoetara, lan eremu asko aktibatzen dituelako.

## Nafarroan, lasai

Nafarroako egoera ez da hain muturrekoa, baina eskaera erritmoa bizkor doa. Etxebizitza Sailak 6.169 etxebizitza zaharberritzeko eskaerak onartu ditu, eta espero du 8.000 ingurura iristea. Ana Bretaña Etxebizitza zuzendariak azaldu duenez, Europako Funtsetako 19,1 milioi euro gelditzen dira banatzeke, eta Nafarroako Gobernuak beste 10 gehitu ditu. Nafarroak 61,4 milioi jaso zituen guztira Europako Funtsetatik etxeak zaharberritzeko.

## Proiektuen %80ra arteko finantzaketa

**+ Eraikinak berritzeko Europako Funtsen diru laguntzak ohikoak baino handiagoak dira, eta horrek eragin du eskari uholdea. Sektoreko iturrien arabera, eraikineko zaharberritze lan osoaren %30 eta 80 artean finantzatzen dute. Batezbesteko ohikoena %40koa izaten ari da. Jaurlaritzak datu batzuk emanak ditu dagoeneko, eta orain arte onarturiko laguntzen batezbestekoa 12.100 eurokoa izan da etxebizitza bakoitzeko. Alegia, kalkulua eginda, eraikin batean fatxada konpontzeko 700.000 euroko lana onartu badute, litekeena da laguntza 280.000 eurokoa izatea —eskaeren %95 onartu dituzte—. Hain laguntza handiak salbuespena dira, Jaurlaritzaren ohiko laguntzen muga 45.000 eurokoa baita. Horri beste bi laguntza gehitu behar zaizkio: diru sarrera txikiak dituztenei eskaintzen zaizkienak eta errenta aitorpeneko kenkariak.**



Hondeamakina bat, Txileko meategi batean. SEBASTIAN SILVA / EFE

# IEAk ohartarazi du ez dagoela mineral nahikorik energia trantsiziorako

Energiaren Nazioarteko Agentziaren ustez, meategi gehiago sortu behar dira, eta ustiapena bizkortu, auto elektrikoen eta baterien eskaria betetzeko

**Jokin Sagarzazu**

Trantsizio ekologikoa arriskuan, energia garbiak erabiltzen dituzten teknologiak ekoizteko mineral nahikorik ez dagoelako. Hala ohartarazi du IEA Energiaren Nazioarteko Agentziak. Erakunde horrek, mineral horien merkatuari buruz egin duen lehen txostenean, kalkulatu du beharrezkoa izango litzatekeela besteak beste kobrearen, nikelaren, litioaren eta kobaltoaren ekoizpena 2022koa halako 3,5 izatea 2030erako. Hori egingo ez balitz, ezinezkoa izango litzateke berotze globala 1,5 gradura mugatzeko helburua lortzea.

IEAren arabera, gaur egungo meategiekin eta datozen urteetan martxan jarriko direnekin, bolumena bikoiztu ahal izango da hurrengo hamarkadaren hasierarako, eta hori baliagarria izango litzateke gobernuek trantsizio energetikorako banaka hartu dituzten konpromisoak betetzeko, baina ez litzateke nahikoa izango 2050ean karbono dioxidoaren zero emisioen helburua betetzeko.

IEAren ustez, ustiapena bizkortu beharko litzateke, batez ere ibilgailu elektrikoen eta energia biltegiratzeko baterien eskaria betetzeko. Azken bost urteetan, *mineral kritiko* deiturikoen eskaerak bikoiztu egin dira: 290.000 milioi eurorenak izan ziren 2022an. Eta energiaren sektorea izan da mineral horien kontsumoa handitu izanaren arrazoi nagusia. Litioaren eskaera hirukoiztu egin da; kobaltoarena %70 handitu da, eta nikelarena, %40.

Energia garbietarako teknologiek munduko litio ekoizpenaren %56 kontsumitu zuten 2022an —2017an %30 izan zen—, kobaltoaren %40 —duela bost urte baino 17 puntu gehiago—, eta nikel ekoizpenaren %16 —sei puntu gehiago—. IEAren arabera, dinamika horrek segitu egingo du datozen urteetan, energia garbien teknologien produkzioak hazten jarraituko duelako. Aurten, eguzki fotovoltaikoak %30eko hazkundea izan du; eolikoak, %70ekoa; eta ibilgailu elektrikoen ekoizpenak, %30ekoa.

## Txinaren monopolioa

Aurreikuspen eta eskariek nabarmen egin dute gora 2021ean eta 2022an; iazko bigarren erdialdetik joera hori moteldu egin bada ere, mineralen prezioak batezbesteko historikoen oso gainetik daude oraindik. Horrek alde on bat izan dezake, IEAren arabera: meatze gehiago eraikitzen lagun dezake.

Fatih Birol IEAko zuzendariak «pozgarritzat» jo du merkatua hain azkar haztea, trantsizio energetikoa gauzatzeko «erabakigarria» delako, baina, aldi berean, erronka handiak daudela esan du: «Askoz gehiago egin behar da mineral estrategikoen hornikuntza kateak seguruak eta iraunkorrak izan daitezen».

Gogoratu du azken hiru urteetan ez dela ia aurrerabiderik izan mineral horiek erauzten dituzten herrialdeen kopuruan, eta are gutxiago horiek fintzen dituztenenean. Birolek ohartarazi du Txinak ia erabateko monopolioa duela horretan, eta horrek asko kezkatzen dituela munduko gainerako industriak.

Iaz, gainera, Txinatik esportatu zen mundu osoan kontsumitutako grafitoaren eta lur arraroen %70 inguru, eta han prozesatzen da kobrearen %40 baino gehiago, litioaren %60 baino gehiago, kobaltoaren ia %5, lur arraroen %90 inguru, eta grafitoaren %100. Aurreko astean, Txinak iragarri zuen galio eta germanio gutxiago esportatuko zuela; hainbat sektoretan erabiltzen dira bi mineral horiek, baina, batez ere, automobilgintzarako erdieroaleak edo txipak egiteko.

Ingurumenarekin loturiko kezkak ere agertu ditu Birolek. Ohartarazi du mineralen tona bakoitza erauzi eta tratatzeko garaian berotegi gasen emisioak izugarri handitu direla azkenengo bost urteetan.

# 498

**ZENBAT ENPRESA GUTXIAGO ARABA, BIZKAI ETA GIPUZKOAN**

Confebask patronalaren arabera, enpresen kopurua apaldu egin da Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan. Azken hamabost urteetako ekainik txarrenetan bigarrena izan da; 498 enpresa gutxiago daude martxoarekin alderatuta, eta 136 gutxiago aurreko urteko ekainarekin konparatuta.

# Hego Euskal Herriak gora egin du Europako I+G rankingean

Batasuneko 239 eskualdeen artean 72.a da EAE, eta 98.a Nafarroa; gabeziarik handiena patenteetan dago

**GASTEIZ** • Hego Euskal Herria Europako Batasuneko «goi berrikuntzako» eskualdeen artean sartu da. Bi urtean, Euskal Autonomia Erkidegoa 21 postu igo da: Batasuneko 239 eskualdeen artean 72.a da. Nafarroa, berriz, 98.a, hamasei postu gorago. Hala dio Europako Batzordeak argitaratutako sailkapenak. Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa biltzen dituen Akitania Berria eskualdea 128. tokian dago, postu bat behera eginda.

Txostena bi urtean behin argitaratzen da, eta 21 adierazle neurtzen ditu. Besteak beste: inbertsioak, fakturazioa, jarduera berritzaileak, ikerkuntza, eta hezkuntza. Zerrendan goian azaltzea garrantzi handikoa izaten da inbertsioak erakartzeko.

EAEren berrikuntza indizea 109,8 da, Europako batezbestekoa baino 9,8 puntu handiagoa; Nafarroan, berriz, 101,8, batezbestekoa baino zertxobait handiagoa. Inbertsioek eragindako errendimenduek, berriz, %11,5 egin dute gora EAEn, eta %14,1 Nafarroan.

Arantxa Tapia Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapenerako sailburuaren arabera, Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako I+G+Baren indargune nagusiak hauek dira: produktu berrien salmenten inpaktua, gazteen kualifikazio handia, eta bizialdi osoko ikaskuntza prozesuetan daudenen ehuneko handia. Bestalde, azaldu du enpresa ertain eta txikiek gehiago inbertitu behar dutela ikerketan eta berrikuntzan; jarduera jakin batzuetan, bereziki: diseinuan, marketinean, jabetza intelektualean, kudeaketan eta prestakuntzan. Tapiak gogoratu du oraindik oso patente gutxi daudela erregistratuta.

Dena den, EAE arretagune garrantzitsutzat jo du, bereziki Espainiako Estatuaren barruan, lehen postuan baitago, Madril eta Kataluniaren gainetik, eta *bikaintasunaren polo* izendapena dauka. Sailburuak azpimarratu du ia estatu guztietan eskualde berritzaileena hiriburua izan ohi dela, eta gaineratu du EAEn egindako inbertsioak estatuko batezbestekoaren oso gainetik daudela (23 puntu gehiago). Gaur egun BPGaren %2,2 inguru da; bost urtean %3ra heltzea da helburua.

# Inpesca euskal enpresako arrantzale bat hil da Indiako ozeanoan lanean zebilela

**MUNDAKA** • LABek jakinarazi du 44 urteko langile bat hil zela joan zen astean Seychelletako Errepublikatik gertu. Mundakan (Bizkaia) egoitza duen Inpesca enpresako arrantzalea zen, eta ezbeharra arrazoi ez-traumatiko batengatik izan zela azaldu dute. Hala ere, sindikatuak salatu egin ditu jarduera horretako lan baldintzek dituzten arriskuak, estresak eta beste. 2023an gutxienez 27 langilek galdu dute bizia lan istripuz.

# OCDEk ohartarazi du arriskua dagoela langileek erosteko ahalmena galtzeko

**MADRIL** • Diru sarrera gutxien duten langileen erosteko ahalmena apaltzeko arriskua dagoela adierazi du Ekonomia Lankidetza eta Garapenerako Erakundeak (OCDE). Inflazioak premiazko materialen eta baliabideen kostua garestitu duenez, diruaren eroste ahalmena txikitu egin da. OCDEk gutxieneko soldata igotzea eskatu du, lan hitzarmen kolektiboek berandu erantzuten diotelako inflazioari.

# NATOk gonbita egingo dio Kievi, «baldintzak betetzen direnean»

## Stoltenbergek espero du aliatuek «mezu baikorra» bidaliko diotela Ukrainari • Zelenskik adierazi du «zentzugabea» litzatekeela NATOk Ukrainari egutegirik ez zehaztea • Moskuk goi bilera kritikatu du

**Mikel O. Iribar**

NATO Ipar Atlantikoko Itunaren Erakundean sartzeko Ukrainak egin beharreko bidearen lehen zertzelada eman zuen atzo Mendebaldeko aliantza militarreko idazkari nagusi Jens Stoltenbergek, erakundeko kideek Vilniusen hasi zuten bi eguneko goi bileran. Hain zuzen, NATOk gonbita egingo dio Kievi aliantzarekin bat egiteko, «kideak ados jartzen direnean eta segurtasun baldintzak betetzen direnean», Stoltenbergek zehaztu zuenez. Ukrainako presidente Volodimir Zelenski Lituaniako hiriburuan zela aintzat hartuta, erakundeko idazkari nagusiak espero du aliatuek «mezu argia eta baikorra» helaraziko dutela Ukrainak bat egiteko bideari buruz.

«Erabat babesten dugu Ukrainak bere segurtasun akordioak aukeratzeko duen eskubidea. Ukrainaren etorkizuna NATOn dago». Hala hasten da Mendebaldeko erakundeak atzo kaleratutako oharra. Nabarmentzen duenez, 2008an Bukaresten egindako goi bileran aliatuek adierazi zuten Ukraina –eta Georgia– aliantzako kide bihurtuko zela, eta atzo ere hala «berretsi» zuten. Eta oharrak zioen baietz, NATOko kideek onartzen dutela Ukrainak bat egiteko bideak «erabat gaindituko» duela Atxikitzeko Ekintza Plana. Gisa horretara, aliatuek Ukrainaren aurrerapenak «babesten eta berrikusten» segituko dute.


Ukrainako presidente Volodimir Zelenski eta Gitanas Nauseda Lituaniakoa, atzo, Vilniusen. FILIP SINGER / EFE

Aliantzaren adierazpena kaleratu eta gutxira, Zelenskik adierazi zuen «NATO indartsu batean duen fedea» konfiantza bihurtzea gustatuko litzaiokeela. «NATOk segurtasuna emango dio Ukrainari, eta Ukrainak NATO bera indartuko du». Zelenski helburu argi batekin joan zen atzo Vilniusera: Mendebaldeko aliantza militarreko kide diren herrialdeek adierazpen bat sinatzea, Ukrainak Errusiarekin duen gerra amaitu ondoren NATOko kide gisa onartzeko konpromisoa har dezaten. Halere, aliantza militarreko 31 kideek dituzten desadostasunak tarteko, baliteke egutegi zehatzik ez ematea goi bileraren amaieran. Horren harira, Zelenskirentzat, «zentzugabea» litzateke erakundeko buruzagiek Ukrainari aliantzan sartzeko egutegirik ez zehaztea. Bada, Stoltenbergek Zelenskiri erantzun zion aurrez aliantzara batu diren herrialdeek ez zutela epe zehatzik izan.

NATOko kideak ados daude Ukraina ezin dela batu Errusiarekin gerran dagoen bitartean. Europako ekialdeko estatuek, aldiz, Kieven jarrera babestu dute, argudiatuz Ukraina NATOren segurtasun kolektiboaren pean jartzea dela modurik eraginkorrena Errusiak berriro eraso egin ez diezaion. Dena den, AEB Amerikako Estatu Batuak eta Alemania, esaterako, zuhurrago eta mesfidatiago agertu dira Mendebaldeko aliantza Moskurekin gatazka zuzen batera eraman dezakeen edozein neurriren aurrean.

**Europa, «arriskuan»**

Mosku tentuz erreparatzen ari zaio NATOren goi bilerari, Kremlinek Ukrainaren inbasioa abiatu aurretik Mendebaldeari eginiko eskaera aliantza 1997ko mugetara itzultzea baitzen; zehazki, presentziarik ez izatea Europa ekialdean. Lituaniako goi bilera kritikatu zuen atzo Errusiako Gobernuko eledun Dmitri Peskovek, eta ohartarazi zuenez, Ukraina NATOn sartzeko prozesua azkartzeak –bi urratsetik bakarrera–, ondorio «oso arriskutsuak» eragingo lituzke. «Potentzialki, hori oso arriskutsua litzateke Europako segurtasunarentzat».

Antzera mintzatu zen atzo Errusiako Atzerri ministro Sergei Lavrov ere. Esan zuen Moskuk «neurri egokiak» hartuko dituela «NATO [ekialdera] zabalduz gero», eta gaineratu Errusiak «segurtasun interes legitimoak» babestuko dituela.

## Indian berrogei lagun hil dira euriteen ondorioz

**NEW DELHI** • Indiako Gobernuak atzo jakinarazi zuen gutxienez berrogei lagun hil direla egunotako euriteen ondorioz; batez ere, herrialdearen iparraldean. Azken lau egunotan, larrialdi zerbitzuek 35 erreskate operazio egin behar izan dituzte, eta horrelako gehiago espero dituzte egunotan ere. New Delhi hiriburuan ez da hildakorik izan, baina ikastetxeak itxi egin dituzte.

## Salomon Uharteek eta Txinak tratua hobetu dute

**PEKIN** • **Txinaren eta Salomon Uharteen arteko segurtasun akordioak, iragan urteko apirilean sinaturikoak, kezka eragin du Ozeanian, eta, batez ere, Mendebaldeko potentzietan. Pekinek, ordea, hilabeteotan babestu du itun hori irla sortari begirakoa dela, eta hori berretsi zuen atzo Xi Jinping Txinako presidenteak, esan baitzuen Salomon Uharteei barne «egonkortasuna» bermatzen lagundu diela.**

**Txinako estatuburua uhartediko lehen ministro Manasseh Sogavarerekin bildu zen, Pekinen, eta, bilkura horren ondoren, Xik adierazi zuen bi herrialdeen arteko «lankidetza sendotu» nahi duela: «Horrek Pazifikoko bakea eta egonkortasuna defendatzeko balioko du».**

**Sogavarek, berriz, argudiatu zuen Txinarekiko harremanak indartzea «erabaki egokia» izan zela; are, esan zuen «prest» dagoela «hainbat arlotan kooperazioa handitzeko». Horren erakusle, Salomon Uharteetako gobernuburuak eta Li Qiang Txinakoak bederatzi akordio sinatu zituztela.**

**Eta, hain justu, Australiak kezka agertu zuen atzo, akordio horiek sinatu, baina edukia argitara atera ez zutelako. Herrialde hori AEBen aliatua da, eta, finean, Salomon Uharteen inguruko eztabaidak agerian utzi du Washingtonen eta Pekinen arteko influentzia borroka.**



**«Palestinaren eta Israelen artekoa bi estaturen soluzioaren kontrako norabidean doa. Aire zabaleko kartzela bat dira lurralde okupatuak»**

**Francesca Albanese**
NBEren Palestinarako kontalari berezia

## Ez daudenak

Astelehenean bi alderdiburu nagusienen arteko eztabaida saioa bilatu nuen telebistan. Twitterren norbaiti leitu bezala, «egia da, bipartidismoa honako hau zen». Hots, nabarmena zen hor ez zeudenen falta, eta, izan ere, bertan ez zegoen jende (eta alderdi) asko izan zen behin eta berriz aipatua. Hurrengo legealdian egin beharreko itunen ataletik kanpo ere, hor ibili ziren Vox eta Otegi (eta ez EH Bildu), hurrenez hurren, Pedro Sanchez eta Alberto Nuñez Feijooren ahotan ezin konta ahala bider. Gabriel Rufianek ere esan du, debatetik kanpo, Espainian gertatu beharrekoa ez dela asteleheneko eztabaida horretan ebatziko: «ERCk eta EH Bilduk erabakiko dute». Ez daudenek agintzen dute berez existitzen ez den herrialdea.



JIRA
Angel Erro

Burua hortik landara zuten bi hautagaien aurrez aurrekoan arreta gehien piztu zidan unea izan zen Sanchezek Iruñea aipatu ez zuenekoa. PPk bide eman dien Voxeko kargu publikoak aletu zituenean, PSOEz halakorik (baina EH Bildu buruan) inork ezin esan izanaz harro. «Lerro arteko honen prezioa», pentsatu nuen nik ere inori ezer esan gabe, «Iruñeak Ibarrola alkate izatea da». Lau urteko garantia du, gainera. Feijook, beste une batean, Sanchezik gabeko PSOErekin negoziatzen irudikatu zuen bere burua.

## Lagunak

Telebistako programa baten harira atera zen gaia: ea agendan besteek espero ez zuten norbaiten telefonoa ote geneukan. Adarra jo zidaten diputatu izan nintzen garaitik izango nuelako PPko norbaiten telefonoa. Broma giroan geunden, baina ez da halakoak galdetzen dizkidaten lehen aldia, eta harritu egiten nau. Telefono agendan lagunen zenbakiak gordetzen ditugu normalean, edo gure bizitzako momentu batean lankide izan ditugunenak, edo maiteminduta egon garen pertsonenak, edo elkarrizketa interesgarri bat eman digutenenak. Eta tarteka gorputza, arima, bihotza eta armairua bezala, telefonoa garbitzea ere ondo dago.



BIRA
Onintza Enbeita

Diputatuak ginen garaian, ERCko diputatu bat eta biok sartu ginen behin igogailuan. Biok baino ez ginen heldu azken solairura, eta besteak jaitsi ahala esan zidan ERCkoak pertsona atsegina nintzela, eta flipatu egiten zuela nola uzkurtzen nintzen alderdi espainoletakoekin geundenean. «Normala da», esan nion: «Ez dut bizitza izorratu nahi didan jendearen laguna izan nahi». Kataluniako erreferendumaren ostean urak erabat nahastu zirenean elkartu ginen berriz, eta nik esandakoarekin gogoratzen zela esan zidan. Beste diputatu zenbaitek hitz egiten ziotenero pentsatzen zuela bizitza izorratu baino ez ziotela egin nahi, eta ezin zuela haiekin atsegina izan.

# Gordeezina

**Yolanda Elorriaga Iturri**
Erretiroa hartu berri duen irakaslea

Askotan esan dudana idatziz adieraztera behartu nau, irakasle ardurarekin batera, ezinak zein egoeraren larriak.

Bigarren batxilergoko ikasleen gehiengoak euskaraz irakurri, ulertu eta irakurritakoa idatziz azaltzeko ezintasuna dauka. Hausnarketa barik buruz ikasteko daude prestatuta, baina metodo horrek ere huts egiten die, hitz bat ahaztu eta idatzi barik uzten dutenean, edo soinuz antzekoa den beste bat jarri eta kasu bietan esaldia ezelako zentzu barik uzten dutenean. Ez dituzte bereizten oinarri-oinarrizko hitz eta kontzeptuak, esaterako: gorpua/gorputza, isolatu/islatu, burutu/bururatu, gatz/gaitz, txikitako laguna/gaztetako amodioa, mutiko/senarra, ipuina/liburua... Hauek irakurritako ipuinei buruzko idatzietan jaso ditudan adibide gutxi batzuk baino ez dira. Eta, hitzon arteko ezberdintasuna mila bider azaldu eta gero ere, eurenean jarraitzen dute. Espainieraz baino ez dutelako entzun eta ulertzen? Ez dituzte euskararen oinarri-oinarrizko egiturak menperatzen. Gure ikasleek oso gutxi irakurtzen dute euskaraz (askok ezer ere ez), oso gutxi hitz egiten dute euskaraz (askok ezer ere ez). Beraz, askoz gehiago irakurri behar dute euskaraz, askoz gehiago hausnartu behar dute euskaraz, askoz gehiago idatzi behar dute euskaraz (eta guk zuzendu), askoz gehiago hitz egin behar dute euskaraz, eta entzuten jakin. Eta jakin behar dute, honela ez badute egiten, ez dutela euskara ikasiko. Hizkuntza bat ezin da ikasi erabili ezean. Eta ez badakite, ezin izango dute gainditu. Edozertara gainditzen baditugu, selektibitateko iazko suspentsoak biderkatu egingo dira, eta dena dela, euskara jakin barik irtengo dira ikastetxetik. Gauden egoeran, euskara eta euskaraz irakasteko egin dezakegun guztia eta gehiago, gutxi izango da. Agian ezinezko baten aurrean gaude.

Ehun bat irakasleko klaustro guztiz euskaldun eta euskaltzale bati idatzi nizkion hitzok (eta e-mailez bidali), hirurogei urterekin borondatezko erretiroa hartu baino hiru hilabete arinago. Eta ez nuen erantzun bat bera ere jaso.

E-maila bidaltzerakoan akatsen bat egin nuela pentsatu nuen lehenengoan (teknologian atzeratua izan naiz beti, eta lehenengoz bidaltzen nien e-mail bat ikastetxeko irakasle guztiei). Mintegikide bati galdetu nion ea e-maila jaso zuen, eta baietz esan zidan, e-maila ondo bidali nuela eta denek jaso zutela. Ez nuela erantzunik jaso esan nionean, nire mezuak erantzuna bere barnean zuela erantzun zidan, eta ez zegoela hari ezer erantzuterik. Egun horretan bertan beste irakasle batek nire mezua irakurri zuela esan zidan (oraingoan nik lehenago ezer aipatu barik). Arrazoia eman zidan, baina gure hizkuntzaren irakaskuntza eta zabalkundea ezinezkoa ez, ezingarria dela esan zidan, horretarako, ordea, ikastolen sorrerako espiritu hura dela guztiz beharrezkoa, guraso-ikasle-irakasle proiektuaren inguruan guztiz bat eginda egotearena. Nire institutuetako esperientzia luzean (36 urte), amaierako urtean hitz egin zidan irakasle batek nire lanaren hasieran beste irakasle batek aipatu zidan ikastolen sorrerako espirituari buruz, baina, oraingoan (zorionez), espiritu hori goratzeko, ze nire hasiera hartan irakasle hark gogor gogorarazi zidan ez nengoela ikastola batean eta nire euskara irakasteko eta eskatzeko asmoa ez zela zilegia institutu batean. Eta zilegia eta onargarria da ikasleak euskaraz alfabetatu barik irtetea institututik? Zilegia eta onargarria da ikasleak euskaraz hitz egin, irakurri eta idazten jakin barik irtetea institututik? Bide batez esateko, ezagutzen ditut ikastolara joan direnak eta hitz bat bera ere euskaraz egiten ez dutenak. Une honetan denok antzean gabiltzala da nire susmoa. Eta ezin izan da dirua digitalizaziorako ordez (Suedian konturatu dira dagoeneko hezkuntzara ekarri duen porrotaz) euskarazko alfabetatzea eta ahozko komunikazioa bermatu edo zainduko duen mailaz mailako kanpo ebaluaziorako erabili?

Kike Amonarrizi *Euskara irakatsi ala hiztun aktiboak sortu?* iritzi artikulua irakurri nion BERRIAN martxoaren 29an. Ba, nire iritziz euskara irakastea eta hiztun aktiboak sortzea banaezinak dira eta ez hautazko aukerak. Ezin da euskara irakatsi hiztun aktiborik sortu barik, eta ezin da hiztun aktiborik sortu euskara irakatsi barik. Euskara irakastea euskaraz hiztun aktiboak sortzea da, baina ez bakarrik hiztun aktiboak sortzea, irakurle aktiboak eta idazle aktiboak ere sortu behar ditugulako. Bestela, ze literatura, egunkari, aldizkari izango da inork irakurtzen ez duena edo inork irakurtzen ez dakiena? Hor arazo gogor-gogorra daukagu.

Nik astean hiru ordutan oso gutxi egin ahal izan dut (asko ahalegindu naizen arren). Mintegian lau apal osorik utzi ditut urteetan ikasleekin irakurri gura eta, ordu zein asti faltagatik, irakurri ezin izan ditudan iritzi artikulu, elkarrizketa, ipuin eta abarrez beteta. Sufritu egin dut eta pena handia izan dut gehiago ezin egiteagatik. Eta atsekabe itzela sentitu dut ikasleak euren artean gaztelaniaz entzuterakoan, batzuetan bikainaren bila ibili diren eta lehenengo ilaran irakaslearen aurrean esertzen diren horiek ere bai. Eta irakaslea ezin euren intimitatean sartu.

Euskara irakaslearen minari buruz Uribe Kostan D ereduko lehenengo belaunaldian hamarreko ikaslea izan nuen Ainhoa de Diego Euskal Hizkuntza eta Literatura irakasleak hitz egin zidan lehenengoz; bere aurreneko irakasle esperientziari buruz hitz egin zidan, eta ikasleak berari espainieraz zuzentzen zitzaizkiolako zuen mina azaldu zidan. Haserre zegoen eta ulertu ezinik, beraiek nire ikasleak izan zirenean beti euskaraz egiten zidatelako. Bai, euskara irakaslea izatea gero eta errazagoa izan ordez, gero eta zailagoa da. Nik ikasleek niri euskaraz egitearen zortea izan dut aurten arte, ze aurten ikasle gutxi batzuk (zehazki mutil bik) espainieraz egin didate, eta ez bakarrik hori, batek ohitzen hasteko ere esan zidan (hori Gernikan). Bai, min egitera. Eta ze defentsa dauka irakasle batek? Zer egiten du min horrekin guztiarekin? Gertaera beste batzuei kontatu? Periodikoan idatzi? Sufritutakoa sufritu duelako errudun sentitu? Bigarren batxilergoan iraintzaile/iraultzaile hitzak ezberdintzen ez dituena zure gainetik dago agintean, bigarren batxilergoan euskaraz liburu bi irakurri behar dituela mila bider errepikatu diozun arren, sinistu ezinik begiratzen dizunak dauka agintea, gizartean euskalduna galtzaile eta zigortu beharreko izendatu delako. Beste ikasle batek (berau ere mutila, baina isila eta lotsorra den horietakoa) idazlan eder-eder baten azaldu zidan euskaraz hitz eginez gero *etarra* edo *vasquito* irainak jasan behar dituztela, iraintzaileak gutxi batzuk direla, baina agintea eurek daukatela. Horixe azaldu zidan ikasle batek azken azterketan iazko uztaileko deialdian selektibitatean jarri zen Martin Ugalderi buruzko *Itzulera baten historia* Anjel Lertxundiren testuari lotutako idazlan proposamenari erantzunez eta herrian gertatutako aldaketak kontatuz. Bai, zer jasan behar dugun! Ez zen berea idazlan eder bakarra izan, beste idazlan batzuk ere gordeta dauzkat. Baina dena ez da isilean gorde eta jasan beharrekoa.




**HIZPIDEAK**

# Normala ez dena ezin da normaltzat jo

**Eider Goenaga Lizaso**
*@EiderGoenaga*

Sanferminetan bada egunero jende ugarik erreparatzen dion datu bat. Goizero-goizero errepikatzen den liturgia baten antzera, entzierroan zenbat zauritu egon diren jakinarazten dute osasun zerbitzuek, eta datu horrek leku esanguratsua izan ohi du hedabideetan, izan ikus-entzunezkoak, izan idatzizkoak. Bada, ordea, hainbeste leku ematen ez zaion beste kopuru bat ere; sanferminetan bezala, tamalez, uda osoan eta herri ugaritan errepikatzen den ia ezkutuko kontaketa bat: sexu erasoen kopurua. Festen amaieran egiten diren balantzeetan ematen dute, bereziki hiriburuetan, kontaketa horren berri. Zenbat eraso izan diren, zenbat atxilotu... eta ondoren zenbat zabor tona bildu dituzten; dena zaku berean joaten da festen osteko balantzean.

Alegia, euren borondatez entzierroan atera eta zezenek zauritzen dituzten horiek arreta gehiago izaten dute, festa giroaz gozatzera irten eta sexu eraso baten biktima izan diren emakumeek baino.

Festetako sexu erasoen ikusgaitasunari begira urrats handiak egin dira azken urteotan, eta lan horri segida ematea, eraso bakoitza salatzea ezinbestekoa izango da aurrerantzean ere. Ezin da festetako balantzean kopuru bat gehiago izan, ezin da normalizatu normala ez dena.

# Kantuan



**HITZ ETZANAK**
Andoni Egaña

Badute zerbait. Sekula gazteleraz entzun ez nuen nire adin moduko jendea, estreinakoz erdaraz, rantxerak kantatuz ezagutu izan dut. Eta gutxigehiago letrak buruz zekizkiten! Adin jakin bateko jende klase bati gustatzen zitzaizkiola pentsatzen nuen. Baina itxura denez, hori baino gehixeago da. Birritan egin dugu topo azken egunotan rantxerekin...

Ertzaintzaren sindikatuek mariatxiak bidali dituzte Sabin Etxearen atarira, EAJri Segurtasun Sailarekin daukaten gatazkari buruzko irizpide argiak eskatzera. Xelebrea. Rantxera ezagunen letrak egokitu egin omen dituzte. Ez dakidana da hizkuntza ere egokitu duten... Aldi berean, berripaper honek Amaia Cambra *Zuribostnerisei* DJari egindako elkarrizketan honako hau irakur zitekeen, inoiz esperientzia txarrik izan al duen galdetuta: «Bai, izan ditut boikotak. Oroitzen naiz nola aritu zitzaidan behin mutil kuadrilla bat, behin eta berriz rantxerak eskatzen, oso zakar». Esanguratsua...

Ahal ustea transmitituko diete rantxerek horrelakoei. Errege izaten segitzearen sentsazioa edo. Nik, bat dut gustuko. Gainaz jardun ordez gainbeheraz ari delako-edo, maite dut bizkarzorro urdina eta loguratu begiak dituen neskatoaren faltan ezinegona eta nota txarrak baino ez dituen mutikoarena.

# Zoaz bakean

Herenegun ez nuen Espainiako lehendakarigai bien eztabaida ikusi. Familiako kontuetan korapilatu nintzen: alabak hau, semeak bestea. Bulebarrean bukatu nuen erosketak egiten, eta hantxe zegoen *le tout* Gasteiz, aldraka. Beharbada ez debatetik ihesi («ze debate?»), aire girotuaren bila baizik.

Gauean txioek kontatzen zuten filmaren arabera, asmatu nuen landareak ureztatzeko zeraren ahoan jartzeko zera eta loreontzietako lurra maneiatzeko palatxoa erostera joaten. Aurten ere ez dut orturik, loreak besterik ez, baina datorren urtean baietz. Tomateak oraindik ez nituzke, baina kuiatxoak dezente (txingorrak mailatuko ez balitu).



**LARREPETIT**
Blanca Urgell

Txikitan derrigor aitortu behar izaten ginen aldian-aldian, eta guk astebetean bekatu gehiago egiteko astirik ez, zerbait esan behar, eta hauxe beti: «Ez diet gurasoei obeditu, gezurra esan dut, nire anaiatxoarekin liskarrean aritu naiz». Zein ere zen bestaldean zegoen apaiza, izan ikastetxera etortzen zena, izan Desamparadosekoa, izan Carmengoa, izan behin etorri ziren misiolari ihar haietako bat, sekula ez zidaten galdetu zertan ez nien obeditu, ze gezur esan nuen, anaia eta biok mutur-joka hasi ginen ala ez. Apaiz haiei bost axola zitzaizkien umeon kontu haiek.

Pentsatu dut gezurrak, Elizak bezala larri eta arinetan banatu beharrean, iraganekoak eta etorkizunekoak bereizi behar ditugula. Datorren urtean barazkirik nik? Bai zera. Ezkerrak kanpainan agindutako guztiak bete? Bai zera. Haatik, etorkizunekoak ez dira gezurrak. Oraindik. Ostera, iraganekoak gezur dira ahotik irten orduko. Gezur arinak, gezur larriak, gezur barkaezinak. Hainbat sailkapen bururatzen zaizkit niri gaur.

Atzoko debatearen ondoren Feijoo irudikatu dut belauniko Almudenako aitorleku bateko zursarearen aurrean burumakur, «ez diet gurasoei obeditu, gezurra esan dut, nire anaiatxoarekin liskarrean aritu naiz» esaten. Apaizaren ahotsa entzungo zen ondotik: «Aitagure bat eta bi abemaria. Zoaz bakean, seme».

berria

**Zuzendaria:** Amagoia Mujika Tolaretxipi **Zuzendariordea:** Eider Goenaga Lizaso
**Edizio arduraduna:** Idurre Lazkano **Argitaratzailea:** Euskal Editorea SM **Publizitatea:** Bidera publizitatea
**Lege gordailua:** SS-0662/03 **Batzorde parekidea:** 0722 I 84059 **Egoitza nagusia:** Martin Ugalde kultur parkea. Gudarien Etorbidea, z/g. 20140 Andoain **Telefonoa:** (0034) 943-30 40 30 Faxa: (0034) 943-59 01 72
**Webgunea:** www.berria.eus **Posta elektronikoa:** berria@berria.eus **Publizitatea:** publi@bidera.eus
**Harpidetza saila:** (0034) 943 - 30 43 45 **Date:** 12/07/2023 **Exemplaire:** 6.228 **Editeur:** Euskal Editorea s.l.
**Directeur de publication:** Amagoia Mujika Tolaretxipi **Comission paritaire:** 0924 C 84059

**Delegation Labourd:** Lisses 3, 64100-Baiona. Tel.: (0033) 559256220. Fax: (0033) 559254303. E-mail: lapurdi@berria.eus **Ordezkaritzak: Araba:** Bizenta Mogel, 6. Posta kodea: 01008 Gasteiz. Telefonoa: 945-15 04 52. Posta elektronikoa: araba @berria.eus **Bizkaia:** Uribitarte kalea, 18, 3. C. Posta kodea: 48001 Bilbo. Telefonoa: 94-435 26 00. Posta elektronikoa: bizkaia@berria.eus **Lapurdi:** Lisses, 3. Posta kodea: 64100 Baiona. Telefonoa: 559-25 62 20. Faxa: 559-25 43 03. Posta elektronikoa: lapurdi @berria.eus. **Nafarroa:** Iratxeko Monasterioa, 45, 13. Posta kodea: 31011 Iruñea. Telefonoa: 948-36 66 22. Posta elektronikoa: nafarroa@berria.eus.



**Pello Bilbao helmugan, duela gutxi hildako Gino Maeder taldekideari garaipena eskaintzen.** GONZALO FUENTES / EFE

# Korapiloa askatu du

## Bilbaok garaipen handia eman dio euskal ziklismoari Tourrean, Frailek irabazi eta bost urtera • Ikusgarri aritu da ihesean, eta bosgarren jarri da nagusian

**Eñaut Agirrebengoa**

Euskal Herrian ezin izan zuen irabazi, baina Pello Bilbaok (Bahrain) ez zuen Tourra esku hutsik bukatu nahi, eta besoak altxatu zituen atzo Issoiren, lasterketako hamargarren etapan. Onenei buruz buru irabaztea ezinezkoa denez, ihesari eman zitzaion gernikarra. Sena eta indarra uztartu zituen, eta errematerako duen gaitasuna erakutsi zuen bukaeran. Aurrez bi etapa zituen irabaziak Giroan, eta, atzo, aurrenekoz gailendu zen Tourrean. Euskal Herriko irteera handiaren ondoren, Bilbaoren garaipen handia iritsi da. Bost urte ziren Tourrean euskal txirrindulari bat nagusitzen ez zela, Omar Frailek Menden irabazi zuenetik. Ehun etaparen ondoren, korapiloa askatu du Bilbaok.

Barruan korapilatutako emozioak askatzeko ere balio izan zion garaipenak. Etapa bukatu berritan, Suitzako Itzulian erorialdi baten ondorioz hil zen Gino Maeder taldekidea gogora ekarri zuen: «Hamahiru urte neramatzan sari honen zain, eta oso berezia da orain lortzea. Gogo handia nuen Ginori garaipena eskaintzeko».

Bost mendateko etapa izan zen, gogorra eta bizia, eta bukaera zirraragarria izan zuen. Krists Neilands (Israel) bakarrik igaro zen azken mendatetik, baina bost iheskide zituen atzetik; horien artean zen Bilbao. Ondo konpondu ziren haiek erreleboka, eta helmugarako hiru kilometroren faltan harrapatu zuten Neilands. Sei txirrindulari, eta sari bakarra. Bilbaok bikain erantzun zien aurkariek aurretiaz egin zituzten erasoei, eta, gero, nagusitasun osoz gailendu zen esprintean, Georg Zimmermann (Intermarche) eta Ben O'Connorren (Ag2r) aurretik. Etapa biribila izan zen Bilbaorentzat: sei postu igo zituen sailkapen nagusian, eta bosgarren jarri zen. 4.34ra du orain Tourreko liderra, Jonas Vingegaard (Jumbo).

> **Hamahiru urte neramatzan sari honen zain, eta oso berezia da orain lortzea. Ginori eskaini nahi nion»**
>
> **Pello Bilbao**
> Bahraineko txirrindularia

Txirrindulariak indarberrituta ziren, bezperan atseden hartu ondoren. Erasorako gogoa zegoen tropelean, eta, lehen kilometroak maldatsuak izanik, hasiera guztiz kaotikoa izan zuen etapak: ihesaldia osatzeko zalaparta faboritoen arteko lehiarekin nahastu zen. Aurrera egin zuten Vingegaardek eta Tadej Pogacarrek, eta lozorroan harrapatu zituzten, besteak beste, Jai Hindley (Bora) eta Carlos Rodriguez (Ineos). Haien taldekideek hortzak estutu behar izan zituzten etena ixteko.

Su hori itzali egin zen, baina anabasak bere horretan segitu zuen. Hainbestekoa izan zen erritmoa, ezen makalaldia izan zuten David Gauduk (Groupama) eta Romain Bardetek (DSM), sailkapeneko zortzigarrenak eta hamargarrenak. Tropela nabarmen argaldu zen, ziklista asko gelditu baitziren atzean. Aurretik, baina, ez zebilen inor. Halako abiaduran, oso zaila zen ihes egitea.

Azkenean, zazpi txirrindulari nabarmendu ziren, 40 kilometroko lehia biziaren ondoren. Horien artean zegoen Bilbao. Beste zazpi lagun izan zituzten atzetik segika, eta denek bat egin zuten jazarpen luze baten ondoren. Sona handiko ziklistak elkartu ziren: O'Connor, Esteban Chaves (Education), Julian Alaphilippe (Soudal), Mattias Skjelmose (Lidl)...

### Neilandsen apustu ausarta

Izenez gutxiago da Neilands; indarrez, ordea, aurkarien gainetik zegoen atzo. Letoniarra bakarrik abiatu zen Chapelle-Marcoussen, etapako mendate erabakigarrian. Hark erasoa jo, eta iheskideei begiratu zien Bilbaok. Ez zen erantzunik izan. Tontorretik helmugara 28 kilometro zeuden, eta Neilandsek minutu erdiko tartea ireki zuen. Ordea, maldan behera hurbildu egin zitzaizkion Bilbao, O'Connor, Chaves, Zimmermann eta Antonio Pedrero (Movistar), eta harrapatu egin zuten ordekan. O'Connor eta Zimmermann ezusteko erasoa egiten saiatu ziren, baina itzala bezala itsatsi zitzaien Bilbao. Esprintean, ez zuen aurkaririk izan. Faboritoak 2.53ra iritsi ziren, denak elkarrekin. Gaur 180 kilometroko etapa leuna jokatuko da Clermont-Ferrand eta Moulins artean.

**SAILKAPENAK**

**HAMARGARREN ETAPA**

| | |
|---|---|
| 1. **Pello Bilbao** (Bahrain) | 3.52.34 |
| 2. Georg Zimmermann (Intermarche) | d.b. |
| 3. Ben O'Connor (Ag2r) | d.b. |
| 4. Krists Neilands (Israel) | d.b. |
| 5. Esteban Chaves (Education First) | d.b. |
| 13. **Alex Aranburu (Movistar)** | 2.53ra |
| 29. **Ion Izagirre** (Cofidis) | d.b. |
| 41. **Mikel Landa** (Bahrain) | d.b. |
| 50. **Jonathan Castroviejo** (Ineos) | d.b. |
| 55. **Gorka Izagirre (Movistar)** | d.b. |
| 81. **Omar Fraile** (Ineos) | 10.56ra |

**NAGUSIA**

| | |
|---|---|
| 1. Jonas Vingegaard (Jumbo) | 42.33.13 |
| 2. Tadej Pogacar (UAE) | 17ra |
| 3. Jai Hindley (Bora) | 2.40ra |
| 4. Carlos Rodriguez (Ineos) | 4.22ra |
| 5. **Pello Bilbao** (Bahrain) | 4.34ra |
| 14. **Mikel Landa** (Bahrain) | 9.09ra |
| 19. **J. Castroviejo** (Ineos) | 16.05era |
| 29. **Gorka Izagirre (Movistar)** | 31.40ra |
| 42. **Ion Izagirre** (Cofidis) | 55.11ra |
| 61. **Alex Aranburu (Movistar)** | 1.13.40ra |
| 78. **Omar Fraile** (Ineos) | 1.26.34ra |

**GAURKO ETAPA**

**Clermont-Ferrand > Moulins 179,8 km**

11. etapa






LEYRE CARRASCO / TOLOSALDEKO HITZA

# «Asko sufritu arren, lanarekin oso gustura geratu nintzen»

**Julen Gabirondo** • Segalaria

Julen Gabirondok bosgarrenez irabazi du Gipuzkoako ohiko segako txapelketa. Guztira, 5.108 kilo belar bildu zituen Asteasun; Euskadiko Txapelketa jokatu ondoren, aizkoran osatuko du sasoia.

**Jon Ander De la Hoz**

Beste behin, Julen Gabirondo (Urnieta, Gipuzkoa, 1989). Herri kirolariak bosgarren aldiz irabazi du ohiko segako Gipuzkoako Txapelketan. Alde handiz gailendu zen igandean Asteasuko (Gipuzkoa) Bulano baserrian jokatutako proban. Orotara, 5.108 kilo belar bildu zituen; Jokin Etxeberria bigarren sailkatuak, berriz, 4.643 kilo. Orain, Euskadiko Txapelketa irabazi nahi du seigarren aldiz, eta, ondoren, aizkoran osatuko du denboraldia. Azken urteekin alderatuta, berritasun nabarmena izango du aurtengo sasoiak: «Pena handiz, baina ez naiz bakarkako pentatloian arituko».

**Igandeko esfortzuaren ostean, giharrak itzuli dira bere onera?**

Halakoetan beti izaten da min pixka bat. Tentsioarekin-eta, behar baino pasada handiagoa hartzen da, eta ondorioak izaten ditu.

**Nolako proba izan zen Asteasukoa?**

Gogorra izan zen. Banekien Jokin Etxeberria izango zela faborito, eta biak oso indartsu hasi ginen, aurrea hartu nahian. Lehen hiru [belar] koadroetan pareko aritu ginen: batek bota, besteak segitu. Pixkanaka aurrea hartu nuen, eta poz horrekin, hala segitu genuen.

**5.108 kilo belar bildu zenituen. Gustura al zaude egindako lanarekin?**

Oso gustura. Sufritu nuen, asko, baina gustura geratu nintzen lanarekin. Belarra ederra zegoen, eta gozatu egin nuen.

**Beraz, beste behin, belardi egokiak aurkitu al zenituzten Bulano baserrian?**

Dudarik gabe. Aitzakiarik gabeko belarra zen. Tamaina onekoa. Euri apur bat ere egin zuen, eta oso belar ona izan zen.

**Iaz, 160 kiloren aldea atera zenion Jon Otegi bigarren sailkatuari. Aurten, 465 kilorena Etxeberriari. Alde handia al da?**

Belarrak agintzen du horretan. Aurrekoan ere esan nuen: berez, lortu nuen abantaila ez da islatzen kiloetan. Uste dut ez genuela hainbeste kiloren aldea. Gero, sail kaskarragoa izan, edo nondik moztu, diferentziak egon litezke.

> **«Esan nuen: berez, lortu nuen abantaila ez da islatzen kiloetan. Uste dut ez genuela hainbeste kiloren aldea»**

**Lehen azpimarratu duzunez, Jokin Etxeberria irabazteko hautagaien artean zegoen. Hura zaintzera atera al zinen?**

Bai, zalantzarik gabe. Garbi esanda, segurtasun falta handia nuen neure buruarekin. Fisikoki oso ondo nengoen, baina, aurten, arazo batengatik ez bada bestearengatik, ez naiz beste urteetan adina aritu segan. Fisikoki ondo egon arren, ez nekien gorputzak nola erantzungo zuen halako proba batean, halako exijentziarekin. Harekin [Etxeberriarekin] batera hasi nintzen, eta ondo sumatu nuen neure burua. Aurrera egitea lortu nuen, eta oso kontentu nago.

**Sarri aipatzen da arlo fisikoa dela zure indargune nagusietako bat. Oraingoan ere erritmo bizian aritu zinen. Horri eustea izan zen garrantzitsua?**

Bai. Erritmoa zertxobait jaisten bada, bestea kenduz-kenduz joaten da, eta orduan lortzen da abantaila. Erritmoari eustea oso garrantzitsua da, baina ez da erraza. Buruak eta gorputzak gelditzeko esaten dute, baina segitu egin behar da, eta komeriak izaten dira.

**Segan garaipen asko lortu dituzu jada, baina irabaztea beti da gozoa, ezta?**

Bai, garaipena beti da ongi etorria. Alde horretatik, bai, oso pozik nago.

**Euskadiko Federazioaren ohiko segakoa al da begiz jota daukazun hurrengo txapelketa?**

Bai. hilaren 22an jokatuko dugu, Zizurkilen [Gipuzkoa]; larunbat arratsaldeko seietan jokatuko dugu. Ilusio handia dut txapelketa horretarako, baina badakit igandean ateratako aldea ezerezean geratu daitekeela, eta proba oso ezberdina izango dela. Oso gogorra izango da hura ere.

**Gaur-gaurkoz, gipuzkoarrak ari zarete segan, gehienbat. Parte hartzaileen koadroa igandekoaren antzekoa izango da Euskadiko Txapelketan, ezta?**

Bai, bera. Zoritxarrez, Nafarroatik, Bizkaitik, Ipar Euskal Herritik eta Arabatik ez dago partaiderik gaur egun. Duela urte gutxi, izan ziren batzuk, baina geratu egin dira. Pena da, baina Gipuzkoako koadro bera izango dugu Euskal Herrikoan.

**Nolako prestaketa osatzen du segalari batek bi asteko tartea duenean? Estutu handia emango diozu gorputzari?**

Bai, gorputzari lan pixka bat eragiteko aprobetxatuko dut aste hau. Datorren astean, berriz, jaisten hasiko naiz pixkanaka: txinpartari eusten saiatu, eta atseden hartuko dut.

**Orain gutxi jokatutako sega-sail txapelketan ez zinen aritu, gerriko minagatik. Erabat osatu al zara?**

Mina joan zait. Arazoa da segan gutxi ibili naizela, eta gerria kargatu egiten zaidala. Denbora askoan makurtuta egotean, geldialditxoak egin behar izaten ditut, gerriko luzaketak egiteko. Bihiru segundo, eta listo berriz ere, baina traba horrekin nabil. Minik ez dut, baina uste dut giharrek ohitura falta dutela.

**Azken urteetan pentatloian eta aizkoran ere aritu zara. Hurrengo helburuak horiek dira?**

Egia esan, erabakia hartu dut aurten. Kosta egin zait hartzea, baina bakarkako pentatloian ez dut parte hartuko. Lan karga handiarekin nabil, saltsa guztietan sartuta. Aizkorarekin burubelarri hasteko asmoa dut sega amaitzean.

**Txapelketak badituzu, ezta?**

Bai, Euskal Herriko lehen mailara igo nintzen iaz, eta kanporaketa jokatuko dut aurten, irailaren 16an. Zaila dago, baina sailkatzea gustatuko litzaidake. Baina beste hautagaiak ere asko dira, eta helburu berarekin joango dira guztiak. Ikusiko da, baina begia hor daukagu jarrita.




**Andoni Calbano Realeko esprinter bergararra, Donostiako Anoetako estadio txikiko pistan.** MAIALEN ANDRES / FOKU

Andoni Calbano da 200 metroko proban azkarren korritu duen euskal atleta: 20,77. Hamabi ehunen hobetu du aurreko marka. Luis Sarriak zuen, 1974tik. 22 urte ditu, eta bi urte eskas daramatza serio atletismoan.

# Mende erdiko hozkada

**Julen Etxeberria** *Donostia*

Ezer ez da betiko, ezta hobeezina dirudien errekor bat ere. Halakoa zirudien Luis Sarriak 200 metrokoan eginikoak: gaindiezina. Atleta bilbotarrak 20,89 egin zuen 1974an, Zurichen (Suitza). Euskal atleten artean, inork ez zuen hain azkar egin 200 metrokoa. Sekulako denbora zen. Itxura zuen luzaroan iraungo zuela.

Halaxe izan da, ia 50 urtez egon baita indarrean, Andoni Calbanok (Bergara, Gipuzkoa, 2000) hobetu duen arte. Duela bi aste eskas egin zuen, Donostian, Anoetako estadio txikian. Realeko 22 urteko atletak 20,77 egin zuen, eta hamabi ehunen hobetu zuen Sarriaren marka. Kolpe batez, mende erdiko hozkada eman zion probari, eta hautsa kendu zien euskal atletismoaren liburuei.

Egunak pasatu dira, eta Calbanok oraindik lanak ditu eginikoa barneratzen. «Bestondo emozionala dut oraindik. Atzo izan balitz bezala gogoratzen dut. Oso egun polita izan zen, sinestezina», azaldu du harmailan eserita, pistara begira. Han egin zuen balentria.

Berehala konturatu ziren Calbano eta haren entrenatzaile Oskar Ezker arratsaldea «biribila» izan zitekeela. «Aurrena, 100 metrokoan parte hartu nuen, eta sekulako marka lortu: 10,42. Nire probarik onena izan gabe horren azkar korritu izanak esan nahi zuen 200 metrokoan marka ikusgarria egin nezakeela». Ordubete eskas geroago baieztatu zen ustea.

Marka ona lortzeko, baldintza bat baino gehiago bete behar dira. Denak bete ziren: sasoi betean zegoen Calbano, oso azkar korri egin zuen, eta eguraldia aproposa izan zen. «Gerta daiteke oso ondo aritzea, marka oso ona lortzea, eta gehiegizko haizeagatik baliogabetzea. Zorionez, biribil irten zen dena».

«Sinetsi ezinda» geratu zen marka esan ziotenean. «21,07 zen nire markarik onena, 30 ehunen okerragoa! Gipuzkoako atleta bakar bat ez zen jaitsi 21 segundoetatik, eta nik, jaitsi soilik ez, koska handia jan nion. Itzela izan zen!».

**Oso erakargarria iruditzen zait egunero hobetzen saiatzea eta gorputza mugaraino eramatea»**

**Andoni Calbano**
Realeko atleta

Poz bihurtu zen asteetan pilatutako amorrua. «Lesio dezente izan ditut azkenaldian, eta arriskua zegoen denboraldia nahi baino lehenago eta ezer egin gabe buka zedin. Konforme ginen Espainiako Txapelketan parte hartzeko marka eginda: 21,30. Sekulakoa egin dugu. Oskarrek eta biok negar malkotan bukatu genuen. Borrokatzea merezi izan zuen». Berehala nabarmendu du entrenatzailearen laguntza. «Hura gabe, ez nuen ezer egingo».

## Sakrifizio asko

Sekretuaz galdetuta, bere burua «asko zaintzea» eta «egunero entrenatzea eta hobetzen saiatzea» aipatu ditu. «Sakrifizio asko egiten ditut: adibidez, goizero etortzen naiz autobusez Bergaratik, eta etxetik ekarritako bazkaria jan eta gero, Arrasatera [Gipuzkoa] joaten naiz arratsaldean, unibertsitatera [Industria Elektronikako Ingeniaritza ikasten ari da]. Lagunekin ere nahi baino gutxiago egoten naiz. Zertarako? Agian, inoiz lortuko ez dudan zerbait lortzen ahalegintzeko. Hori da sakrifiziorik handiena. Eskerrak asko zaintzen nauen jende pila dudala inguruan: familia, entrenatzailea, lagunak... Haiekin gogoratzen naiz orain, egun polit hauetan».

Haren ustez, «ezezagutza» dago atletismoaren inguruan. «Jendeak uste du erraza dela korri egitea, baina, Anoetara etorriko balitz, ikusiko luke ezetz. Are, uste baino gutxiago egiten dugu korri. Asko lantzen ditugu teknika, indarra, erresistentzia eta abiadura. Eta, gero, kronometroaren mende bizi gara; hark ez du inoiz gezurrik esaten». Lantaldean duten giro ederrak arintzen du egitekoa. «Oso ondo dago txapelketetan lehiatzea eta markak lortzea, baina, ez baduzu egunerokoan gozatzen, galduta zaude. Nik izugarri gozatzen dut. Oso erakargarria da egunero hobetzen saiatzea eta gorputza mugaraino eramatea. Atletismoak harrapatuta nauka; oso kirol polita da, eta, banakakoa izan arren, lantalde ederrak osatzen dira. Jendea animatuko nuke, gutxienez proba dezan».

Dituen dohainez galdetuta, teknika azpimarratu du. «Nahiko ona dut. Gozatu egiten dut hura lantzen. Badirudi erraza dela gure gorputza kontrolatzea, baina oso zaila da, eta are gehiago korrika ari garenean. Beste atleten bideo pila ikusten dut, guztiek baitute euren teknika. Izugarri gustatzen zait Marcell Jacobs italiarra, 100 metroko txapeldun olinpikoa».

Indarguneak baino gehiago ditu hobetu beharrekoak. Ez da harritzekoa, ia hasiberria baita. «Bi urte baino ez daramatzat serio. Aurretik, bi urtez aritu nintzen Eibarren [Gipuzkoa], Inma Urkiolarekin, baina futbolean ere jokatzen nuen. Pentsatu nahi dut urteak joan eta eskarmentua hartu ahala hobetu egingo dudala».

Espainiako Txapelketa du begiz joa. Hilaren 28tik 30era jokatuko da, Torrenten (Herrialde Katalanak). Iaz, brontzezko domina lortu zuen. Haren ibilbide laburreko emaitzarik onena da. Egun, markarik onenetan hirugarrena du Espainiako Federazioaren sailkapenean. «Baina halako txapelketetan ezustekoak egoten dira. Sasoiko iritsi nahi dugu, eta pausoz pauso joan, kanporaketaz kanporaketa. Tentsio handia dago; nerbioak garesti ordainduko dira».

Eta gero? Barrez hasi da. «Ez nekien horren urrun iritsiko nintzenik. Are, nire ibilbideko helburuak bete ditut jada: 200 metrokoan, 21 segundoetatik jaistea; eta, 100 metrokoan, marka bikaina egitea». Baina horrek ez du esan nahi gehiago nahi ez duenik. «Honek ez du etenik. Gustatuko litzaidake marka hobetzea, eta Espainiako txapeldun izatea. Aurten, Munduko Txapelketa dago, eta 2024an, Olinpiar Jokoak, baina, egun, hitz handiak dira horiek».



**«Osasunak merezi du Europan jokatzea. Athleticek ez du zerikusirik salaketarekin. Zaleak gure aurka jarri nahi izan dituzte»**

**Ernesto Valverde**
Athleticeko entrenatzailea




**Caster Semenya.** ALBERTO ESTEVEZ / EFE

## Estrasburgok esan du Semenya diskriminatu zutela

**ATLETISMOA • Giza Eskubideen Europako Auzitegiak ebatzi du Munduko Atletismo Federazioak (IAAF) Caster Semenya atleta hegoafrikarra diskriminatu zuela 400 metro eta milia bat (1.609 m.) arteko lasterketetan aritzea debekatu ziolako berezko testosterona maila jaisteko botikak hartu ezean. Semenya bitan izan zen txapeldun olinpiko 800 metrokoan.**

**IAAFk 2018an jarri zion debekua, eta atletak helegitea aurkeztu zuen Kirola Arbitratzeko Epaitegian (TAS), baina hark ez zion kendu debekua. TASen arabera, IAAFk emakume atletei testosterona muga bat ezartzea «baztertzailea» da, baina, «arrazoizkoa, beharrezkoa eta proportzionala» da emakumeen atletismoaren «integritateari» eusteko.**

**Semenyak ez zuen onartu botikak hartzea, eta 5.000 metrokoan lehiatzen hasi zen. Baina ez zituen emaitza onak lortu.**

**Lehiatzen ez ezik, epaitegietan borrokatzen jarraitu zuen. Hala, helegitea jarri zuen Estrasburgoko epaitegian, eta hark eman dio arrazoia. Halere, debekuak bere hartan iraungo du. Are gehiago, aurten IAAFk ontzat jo du atleta transexualei lehiatzen ez uztea.**

# Begi bat irailean



EKOGRAFIAK
Lander Arretxea

Ez da uda telebistari gehiegi eskatzeko garaia. Goizetako entzierroak oraindik lo harrapatzen bazaitu, Tourrak oraindik lanean eta arratsaldeko programa gastronomikoek lagunartean, ezer gutxi izango du zuri eskaintzeko. Eta hala ez bada ere, antzeratsu. Espainiako (enegarren) bozen aurreko giro lokaztuak ez du askorik laguntzen. Sanchez vs Feijoo aurrez aurrekoa ikusi bazenuen, edo bi presidentegaiak saioz saio egin duten elkarrizketa txangoa ikusi baduzu, ondo dakizu zergatik.

Ez da hain tragikoa ere. Zorionez, udan badira –beste garai batzuetan baino are gehiago– telebista ikustea baino zeregin tentagarriagoak. Uztaileko eta abuztuko programazioaz kexatzea alferrikako lanak hartzea da. Halakoetan, ekaineko azterketak itxura kaskarra dutela-eta ikasgaia zuzenean irailerako uzten dutenak nola, hobe da itxaropentsu begiratzea hurrengo ikasturteari.

Itxaropentsu eta ilusioz. Batetik, hori delako ikasturteak amaitu eta berriak hastearen funtsa: kontagailua hutsean jartzea. Iraganeko akats guztiak ahaztu eta asmo berriei zerotik ekiteko aukera jartzen digu parez pare. Berdin balio du kirol taldeentzat, ikasleentzat edo ohitura osasungarriagoak gureganatu nahi ditugun ameslariontzat. Baina ez da hori aurreikuspen optimistak egiteko aitzakia bakarra. Nobedadeak datoz, eta potoloak: plan aldaketarik ez bada, Zinemaldiaren bueltan aurkeztuko du ETBk Primeran plataforma, behingoz. Eta 2024an, Makusi, haurrentzako plataforma. Biek ala biek dute berritasun tekniko soila baino gehiago izateko bokazioa zein ardura. Zenbaterainoko iraultza ekarriko duten? Ikusiko dugu.

Ikusteko moduak baino gehiago axola du mamiak berak, eta plataforma berriak ere edukiagatik epaituko ditugu edukiontziagatik baino gehiago. Baina, nahi duenarentzat, horretan ere bada baikortasunerantz lerratzeko albisterik. Irailaren 14an *Zinea zetaz* saioa estreinatuko du ETB1ek. Zinemaldiarekin batera plazaratuko da hori ere, eta izenak iradokitzen duenez, filmak izango ditu ardatz. Euskarara bikoiztutako filmak ikusiko al ditugu tartean?. Aurrez badakiguna da Itziar Ituño eta Eneko Sagardoi izango direla aurkezleak. Haiek konbentzitzeko gai izan badira, taxuzko saioa diseinatu duten seinale. Hori esaten diot, begi bat irailean, nire alde eszeptikoari.

# ‘SOS Kantak arriskuan’ saioa ETB1era itzuliko da bihar gauean

Klara Mendizabal, Lide Hernando eta Iker Lauroba zazpi herritan ibiliko dira denboraldi berrian

**Urtzi Urkizu** *Donostia*



**Iker Lauroba, Klara Mendizabal eta Lider Hernando dira *SOS Kantak arriskuan* saioaren gidariak.** ETB

Iazko irailean estreinatu zuen ETB1ek *SOS Kantak arriskuan* programa, eta, lehen denboraldian, hamar herritan ibili ziren Klara Mendizabal, Iker Lauroba eta Lide Hernando, kanta herrikoien istorioen bila. Denboraldi berrirako, zazpi atal grabatu dituzte: bihartik aurrera ikusi ahalko dira euskarazko katean, ostegun gauetan (22:40).

Formatu berari eutsiko diote denboraldi honetan. Bisitatuko dituzten herriak, berriz, hauek izango dira: Azpeitia (Gipuzkoa), Lemoa (Bizkaia), Arrasate (Gipuzkoa), Bidarrai (Nafarroa Beherea), Mungia (Bizkaia), Zarautz (Gipuzkoa) eta Urruña (Lapurdi).

Unai Iparragirre ETBko zuzendariak udako programazioaren aurkezpenean azaldu zuen bere saio «kutunetakoa» dela *SOS Kantak arriskuan*. «Ondarea berreskuratzen laguntzen du; zerbitzu publikoa egiten du».

Klara Mendizabal soprano eta programako aurkezleak aipatu zuen «bide beretik» jarraituko dutela. «Herriz herri ibiliko gara auto horiarekin, Euskal Herri osoan. Jendeari laguntza eskatuko diogu istorioen berri izan eta kantak berreskuratzeko».

Grabaketetan harrera beroa izan dutela azaldu zuen Mendizabalek: «Gauza zirraragarriak bizi ditugu. Jendeak ezagutzen ditu programa eta auto horia. Herritarrak poztu egiten dira autoarekin iristen garenean, eta izugarri laguntzen digute».

Laurobaren arabera, herri batzuetan «bereziki» ondo kantatzen dute: «Bidarrain izan ginen, eta nabarmentzekoa da Nafarroa Beherean zein ongi abesten duten». Hiru aurkezleek gero eta hobeto ezagutzen dute elkar. «Gure arteko konplizitatea handiagoa da», aipatu zuen Laurobak. «Saioak kultura du, eta umoretik ere badu. Gastronomia ere bai: Mungian jan nuen inoizko napolitanarik gozoena».

## Julen Axperen ‘Aupa hi!’ saioa, gaurtik ETB2n

**Julen Axpe Otxandioko (Bizkaia) gazteak lau urte daramatza furgoneta batean bizitzen, bakarrizketak egiten, eta bere bizimodua sare sozialetan erakusten. Bizimodu hori telebistara eramango du gaurtik aurrera ETB2ko *Aupa hi!* saio berrian (22:25). Axpe kontu-kontari arituko da sare sozialetako bere jarraitzaileekin; gainera, haietako batek proposatutako erronka betetzen saiatuko da. Astero, gai bati helduko diote: maitasuna, ametsak, animaliak, zahartzaroa... Axpek berak herritarrekin izango dituen elkarrizketetatik sortuko dira gaiak. Umoreak tarte nabarmena izango du programan.**

**Bihar, berriz, *Baserri Gourmet* saioa estreinatuko du ETB2k. Julius Bienert aurkezlea jatetxe bihurtu diren baserrietara joango da. Paisaiak, ondare arkitektonikoa eta kultura gastronomikoa uztartuko dituzte.**

## RTVE Audio plataforma abiarazi dute

**MADRIL** • RTVE korporazio publikoak Interneteko plataforma bat sortu du irratiak, audioak eta podcastak biltzeko: RTVE Audio. Doakoa da, baina erregistratu egin behar da erabiltzeko. Zuzeneko emanaldiak egongo dira hartan, eta irrati programa zaharrak berreskuratzeko aukera ere izango da. Plataformaren aplikazioa Google Playn eta Apple Storen deskarga daiteke.

## ‘Sonic Prime’-ren atal berriak, euskaraz ikusgai

**LOS ANGELES** • Netflix plataformak *Sonic Prime* marrazki bizidunetako telesailaren bigarren denboraldia estreinatuko du bihar, eta euskarara bikoiztuta ere ikusi ahalko dira atal berriak. Lehen denboraldia iazko abenduan estreinatu zuen Netflixek, eta aurreneko zortzi atalak ere euskarazko audioarekin ikus daitezke ordainpeko plataforman.

## ‘Reality’ berri bat grabatzen ari dira ETB2 katerako

**NATXITUA** • Muturreko abenturetan lehian aritu beharko dute ETB2 kateko *reality* berri bateko lehiakideek. *La Caza* du izena saioak, eta Juanma Lopez Iturriaga da aurkezlea –duela urte asko beste lehiaketa batzuk aurkeztu zituen ETB2n–. Hainbat natur eremutan ari dira grabatzen; Natxituan (Bizkaia), esate baterako. Saioa udazkenean estreinatuko dutela iragarri dute.

50 urte Petronor energiaz
ENERGIA AURREZTEKO AHOLKUAK
Iturria: Energiaren Euskal Erakundea
Galdara berria erosten duzunean, errendimendu handikoa erosi: gutxiago kontsumituko du, eta, dirua aurreztuko duzu.
REPSOL

# Eguraldia

euskalmet
euskal meteorologia agentzia




**GAUR**

# Fresko

Isurialde atlantikoan hodeiak izango dira nagusi beste behin, eta baliteke tarteka euri pixka bat egitea. Hegoaldean giro nahiko argia izango da, baina erdi mailako hodeiak eta goi hodeiak agertuko dira. Ipar haizearen eraginez, tenperatura beste koska bat jaitsiko da, eta leku gehienetan beroenak 25 gradu azpitik geratuko dira. Ebro ibarrean ere tenperatura asko jaitsiko da: maximoak 30 gradu inguruan ibiliko dira.

**JOERA**

Ostirala, 14

Larunbata, 15

Igandea, 16



**ITSASOA**

Mendebaldeko haizea, 2-3ko indarrarekin; eguerditik aurrera, iparraldekoa, 3koarekin. Itsaso kizkurra edo itsaskirria. Iparmendebaldeko hondoko itsasoak metro erdi eta metro bete arteko olatuak altxatuko ditu.

| ITSASALDIA | ORDUA | METROAK |
|---|---|---|
| Itsasgora | 00:42 | 3,63 |
| Itsasbehera | 06:49 | 1,50 |
| Itsasgora | 13:22 | 3,50 |
| Itsasbehera | 19:27 | 1,53 |

**ISOBARA MAPA**



| EGUZKIA | SORTU | GORDE |
|---|---|---|
| | 06:43 | 21:52 |

| ILARGIA | EGUNA |
|---|---|
| Ilberria | Uztailak 17, astelehena |
| Ilgora | Uztailak 25, asteartea |
| Ilbetea | Abuztuak 1, asteartea |
| Ilbehera | Abuztuak 8, asteartea |

**BIHAR**

## Apurka argituz joango da

Hodeiak izango dira oraindik ere isurialde atlantikoan, eta baliteke euri pittin bat egitea. Arratsaldeak aurrera egin ahala, berriz, argituz eta argituz joango da. Hegoaldean giroa askoz argiagoa izango da. Iparraldeko haizea ibiliko da, eta tenperatura maximoak ez dira askorik aldatuko.

### HAMAIKA

**07:00:** Hamaika 24. **07:30:** EH24. **08:00:** Miru. **08:30:** Hamaika24. **09:00:** EH24. **09:30:** Hamaika 24. **10:00:** EH24. **10:30:** Hamaika 24. **11:00:** Geltokia. **11:30:** KZK News. **12:00:** Gurean gaur. **14:00:** Eguerdian gaur. **15:00:** Geltokia. **15:30:** 11 leiho. **16:30:** Bizi musika. **17:00:** Arratsaldean gaur. **17:30:** Hamaika 24. **18:00:** Arratsaldean gaur. **18:30:** Hamaika 24. **19:00:** Arratsaldean gaur. **19:30:** Hamaika 24. **20:00:** KZK News. **20:30:** Gurean gaur. **21:30:** KZK News. **22:00:** Kolpez kolpe. **01:00:** Hamaika 24.

### ETB 1

**06:25:** Marrazki bizidunak. **07:45:** Entzierroa. **08:30:** Marrazki bizidunak. **11:00:** Adinberri. **11:30:** Martin. **12:00:** In english please. **12:10:** Kerman mintzalagun bila. **12:30:** Txoriene. **13:15:** Joseba Arginano Sukalerrian. **14:00:** Gaur egun. **14:50:** Eguraldia. **15:00:** Frantziako Tourra. 11. etapa: Clemont-Ferrand - Moulins. **15:10:** Nafarroarako deskonexioa: Herri txiki, infernu... Ez da posible!. **18:15:** Biba zuek!. **19:45:** Eguraldia. **20:00:** Gaur egun. **20:45:** Artefaktua pasarteak. **20:50:** Ez da posible!. **21:20:** DBH. **21:30:** Gora bihotzak. **22:30:** Pilota. ETB Kantxa. **01:00:** Joseba Argiñano Sukalerrian. **01:45:** Herri txiki infernu handi.

### ETB 3

**08:45:** Otsoko. **09:00:** Zorionak. **09:05:** Milo. **09:25:** Mya Go. **09:30:** Remy eta Boo. **09:55:** Super Dino. **10:20:** Ernest eta Rebeka. **10:40:** Maya erlea. **10:50:** Hirukiak. **11:15:** Dora esploratzailea. **11:35:** Polly Pocket. **11:55:** Doraemon katu kosmikoa. **12:20:** Andu berandu. **12:45:** Presto! magia eskola. **13:05:** Ahizpak. **13:35:** Kaleko futbola. **13:55:** Mini ninjak. **14:20:** Oum, izurde zuria. **14:50:** Aberezoroak. **15:10:** Squish. **15:30:** Pipi Kaltzaluze. **15:55:** Gadget inspektorea. **16:20:** Doraemon. **16:45:** %100 Otso: Ilargi-harriaren kondaira. **17:05:** Dragoiak, muga berrien bila. **17:25:** Gormiti. **17:50:** Lakebottom kanpamendua. **18:30:** Danger Mouse. **18:50:** Hau da Joey. **19:05:** Pingu hirian. **19:10:** Dinotrak. **19:30:** Blinky Billen abenturak. **19:55:** Spirit, zaldi ipuinak. **20:15:** Kody Kapow. **20:35:** Idefix eta menderakaitzak. **21:05:** Doraemon. **21:50:** Mutil neska txakur katu sagu gazta. **22:15:** Lan bitxiak. **22:35:** Rocket Monkeys. **23:15:** Dave Spuden mundu kaskarra.

### KANALDUDE

**12:00:** Euskal Trails. **20:00:** Harri salda. **21:00:** Musika zuzenean.

**Hollywood**
**12:40:** Step Up All In. **14:30:** Las brujas. **16:05:** Harry Potter y el prisionero de Azkaban. **18:20:** Un buen año. **20:20:** Ira de titanes. **22:00:** Training day.

**AMC**
**13:10:** El último testigo. **14:50:** El tercer hombre. **16:40:** Valkiria. **18:40:** La venganza del hombre muerto. **20:35:** Juego peligroso. **22:10:** La conspiración de noviembre. **23:55:** Infectados.

euskaltel

### ETB 2

**09:25:** Con el verano a cuestas. **10:30:** A bocados. **11:30:** En jake. **13:55:** Atrápame si puedes. **14:58:** Teleberri. **15:50:** Kirolak. **16:00:** Eguraldia. **16:20:** Esto no es normal. **17:55:** Nos echamos a la calle. **20:10:** A bocados verano. **21:00:** Teleberri. **22:05:** Eguraldia. **22:25:** Aupa hi!. **23:30:** Chiloé - una aventura ultratrail. **00:45:** Atrápame si puedes.

### ETB 4

**10:25:** Yo sé más que tú. **12:05:** Date el bote. **12:55:** Lingo. **13:55:** Euskolegas. **15:20:** Mi querido Klikowsky. **17:10:** Vascos por el mundo. **17:25:** A bocados. **19:25:** Historias a bocados. **20:20:** Vascos por el mundo. **21:30:** Atrápame si puedes. **22:20:** Zinema. Agatha Christie: el misterio de pale horse. 2020. **02:20:** A bocados.

### La 1

**08:00:** La hora de La1. **11:30:** Hablando claro. **14:10:** Ahora o nunca. **15:00:** Albisteak. **16:30:** La Promesa. **17:25:** El paraíso de las señoras. **18:20:** El comodín de La1. **19:20:** El cazador. **20:30:** Aquí la tierra. **21:00:** Albisteak. **21:50:** 4 estrellas. **22:35:** Zinema. Al filo del mañana. **00:15:** Imma Tataranni.

### La 2

**12:15:** Dokumentala. **13:10:** Zinema. Un tren para Durango. **14:45:** Dokumentala. **15:30:** Saber y ganar. **16:15:** Frantziako Tourra. 11. etapa. **17:40:** Grandes documentales. **18:05:** Documenta2. **18:55:** Dokumentalak. **19:45:** Una matemática viene a verte. **20:15:** Culturas 2. **21:10:** Dokumentala. **23:35:** Turismo rural en el mundo. **00:10:** Documentos TV. **01:05:** Metrópolis.

### Antena 3

**08:55:** Espejo público. **13:20:** Cocina abierta de Karlos Argiñano. **13:45:** La ruleta de la suerte. **15:00:** Albisteak. **16:30:** Amar es para siempre. **17:30:** Pecado original. **19:00:** Y ahora Sonsoles. **20:00:** Pasapalabra. **21:00:** Albisteak. **21:45:** El hormiguero. **22:45:** Hermanos. **00:45:** Doctor Alí. **02:30:** Live Casino.

### Tele 5

**07:00:** Albisteak. **08:55:** El programa de Ana Rosa. **13:30:** Ya es mediodía. **15:00:** Albisteak. **15:45:** Mía es la venganza. **16:45:** Así es la vida. **19:00:** 25 palabras. **20:00:** Reacción en cadena. **21:00:** Albisteak. **22:00:** ¡Vaya vacaciones!. **22:50:** Zinema. Si yo fuera rico. **01:10:** Zinema. Ocho apellidos vascos.

### La Sexta

**07:00:** Aruser@s. **11:00:** Al rojo vivo. **14:30:** Albisteak. **15:45:** Zapeando. **17:15:** Más vale tarde. **20:00:** Albisteak. **21:00:** La Sexta Clave. **21:30:** El intermedio. **22:30:** Pongamos que hablo de...

### Cuatro

**07:50:** Alerta Cobra. **08:40:** Heldt. **10:20:** Alerta Cobra. **13:15:** En boca de todos. **15:20:** Kirolak. **15:40:** Todo es mentira. **18:00:** Cuatro al día. **20:45:** Kirolak. **21:05:** First dates. **22:50:** Viajeros Cuatro.

### TF1

**11:00:** Les feux de l'amour. **11:45:** Les douze coups de midi. **13:00:** Journal. **14:00:** Joséphine, ange gardien. **17:30:** Les plus belles vacances. **18:30:** Ici tout commence. **19:10:** Demain nous appartient. **20:00:** Journal. **21:10:** Zinema. Les Bronzés. 1978. **22:55:** Le Splendid: l'histoire d'un succès.

### France 2

**09:30:** La maison des maternelles. **10:50:** Chacun son tour. **11:55:** Tout le monde veut prendre sa place. **13:00:** Journal. **13:55:** Ça commence aujourd'hui. **15:00:** Tourra. 11. etapa. **17:50:** Vélo club. **18:35:** N'oubliez pas les paroles. **20:00:** Journal. **20:50:** Un si grand soleil. **21:10:** Les rescapés de l'Arianna.

### France 3

**10:55:** Succulent!. **11:35:** Outremer.info. **11:50:** Le 12/13. **12:55:** Tourra. 11. etapa. **14:05:** Un cas pour deux. **16:15:** Duels en familles. **17:00:** Slam. **17:45:** Questions pour un champion. **18:30:** Le 18.30. **19:20:** Le 19/20. **20:20:** Samedi d'en rire, la quotidienne. **20:50:** Tout le sport. **21:10:** La carte aux trésors. **23:25:** La mort du loup. **00:55:** La carte aux trésors.

Euskadi, auzolana
EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

Gobierno de Navarra
Nafarroako Gobernua
AGENDA 2030

# Denbora-pasak

## HITZ GEZIDUNAK




## HITZ GURUTZATU TXIKIAK




**Ezker-eskuin.** 1. Gizon izena. Zenbaki arrunten segidan lehenari, apalenari dagokion kopuruaren adierazlea. Kolore sistema. 3. Itsasontzietan, albo bakoitzaren goialde edo goiko ertz. Zegoen. 4. Jarria. Bi bokal. 5. Frantzia, Belgika eta Herbeheretako ibaia. Big ..., unibertsoari hasiera eman zion eztanda handia. 6. Ez eme. Azaleko gogorgunea. 7. Suari dariona. Katu ar. 8. Ameriketako Estatu Batuak, labur-labur adierazita. Toka, da. Arabako kontzejua, Aiaran.

**Goitik behera.** 1. Kimuak. 2. Lurrunaren indarrez ibiltzen den ontzia. 3. Argien hiria. Euskaltegi sarea. 4. Moztuak. Alfabetoko letra . 5. Tona, labur-labur. Berrogeita hamaika, zenbaki erromatarren arabera. Berezkoak ditu letra hauek gure ergatibo singularrak. Kontsonantea. 6. Orpo hitzaren erdian. Abiadura, lastertasuna. 7. Joan den urtean. Garaia. 8. Familien belaunaldien segidak. 9. Malko guruinei darien isurkari.

## BAKOITZARI BEREA

Ezkerreko zutabean, Euskal Herriko herri batzuen zerrenda duzu, eta, eskuinekoan, herri horietako biztanleek duten ezizena. Lot ezazu ezkerreko herri bakoitza dagokionarekin.

| | |
|---|---|
| A. Agurain | 1. Trapujaleak |
| B. Elorrio | 2. Xikiteroak |
| C. Lezo | 3. Kondeak |
| D. Haltsu | 4. Azkonarrak |
| E. Baigorri | 5. Bele jaleak |

## SUDOKU ERRAZA

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | | | 1 | 4 | | |
| 2 | | 5 | | 8 | 3 | 6 | 9 | |
| | | | 9 | 6 | 5 | | | |
| 9 | | 2 | 8 | | | | | |
| | 8 | | | 4 | | | 6 | |
| | | | | | 7 | 2 | | 3 |
| | | | 7 | 2 | 9 | | | |
| | 7 | 6 | 3 | 5 | | 8 | | 9 |
| | | 9 | 6 | | | | | |

## SUDOKU EZ HORREN ERRAZA

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 9 | 6 | 7 | | | | | 5 | |
| 1 | | | | 2 | | 7 | 6 | |
| | 4 | | | | | 8 | | 9 |
| | | | | 4 | | | | 6 |
| | | | 3 | | 7 | | | |
| 8 | | | | 6 | | | | |
| 7 | | 9 | | | | | 1 | |
| | 3 | 5 | | 1 | | | | 8 |
| | 1 | | | | | 9 | 7 | 5 |

## AURREKO ERANTZUNAK

| | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| K | E | M | E | N | M | A | N | I | U | R | A |
| A | L | A | I | O | L | D | A | R | K | O | R |
| S | E | L | E | N | I | O | T | E | I | L | A |
| A | S | T | O | I | T | A | U | N | T | A | Z |
| I | T | A | X | U | R | I | R | A | Z | K | I |
| L | A | B | A | S | O | N | A | R | E | A | M |
| A | T | A | L | K | O | P | O | T | A | S | A |
| Z | U | H | A | U | R | A | H | O | T | A | N |
| U | P | A | P | R | O | S | A | A | I | R | E |
| T | A | M | A | L | Z | E | R | U | T | A | R |
| I | G | A | R | O | K | O | R | G | I | Z | A |
| K | U | R | A | I | O | S | A | P | A | I | Z |



| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 7 | 5 | 6 | 9 | 4 | 1 | 2 | 3 | 8 |
| 4 | 8 | 2 | 7 | 3 | 5 | 6 | 9 | 1 |
| 1 | 3 | 9 | 6 | 8 | 2 | 7 | 4 | 5 |
| 5 | 1 | 4 | 2 | 7 | 3 | 8 | 6 | 9 |
| 3 | 6 | 7 | 8 | 1 | 9 | 4 | 5 | 2 |
| 9 | 2 | 8 | 5 | 6 | 4 | 1 | 7 | 3 |
| 6 | 9 | 1 | 3 | 2 | 7 | 5 | 8 | 4 |
| 8 | 4 | 3 | 1 | 5 | 6 | 9 | 2 | 7 |
| 2 | 7 | 5 | 4 | 9 | 8 | 3 | 1 | 6 |

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 9 | 4 | 7 | 6 | 8 | 5 | 2 | 3 | 1 |
| 6 | 2 | 3 | 7 | 1 | 4 | 9 | 5 | 8 |
| 5 | 8 | 1 | 2 | 9 | 3 | 4 | 6 | 7 |
| 4 | 1 | 9 | 3 | 6 | 8 | 7 | 2 | 5 |
| 3 | 5 | 6 | 4 | 7 | 2 | 1 | 8 | 9 |
| 2 | 7 | 8 | 1 | 5 | 9 | 3 | 4 | 6 |
| 7 | 6 | 4 | 5 | 3 | 1 | 8 | 9 | 2 |
| 8 | 3 | 5 | 9 | 2 | 7 | 6 | 1 | 4 |
| 1 | 9 | 2 | 8 | 4 | 6 | 5 | 7 | 3 |

# Udagiro




IÑIGO URIZ / FOKU

## Sanferminak. Umeek ere badituzte berentzako txokoak

Egun hauetan lasaiago dabiltza haurrentzako jolasguneetan. Udalak, ordea, euskarari buruzko erreferentziak kendu ditu. ● 26

**22 Musika** Euskarazko kantuaz aritu da Marie Hirigoien Kanterrin
**23 Musika** Murugarrenek Nick Caveren musikara jo du
**25 Turismoa** Museoek bisitariak erakartzen dituzte



**Marie Hirigoien, *XX. mendeko euskal kantua Iparraldean* izeneko hitzaldian, atzo, Kanterri jardunaldietan, Oiartzunen.** MAIALEN ANDRES / FOKU

Marie Hirigoienek Kanterrin azaldu du kantatzeko era berezi bat izan dela Ipar Euskal Herrian XX. mendean, eredu estandarra baino askeagoa, eta baloratu beharrekoa.

# Noten mugetatik aske abestea

**Andoni Imaz** *Oiartzun*

Gyorgy Ligetiren *Lux aeterna* entzuten da aretoan. Ez da lan erraza hamasei abeslariren kantuaz osaturiko masa berezi horri antzematea, ariketa sinple horren konplexutasunaz jabetzea. Ahotsekin egindako lan hori tonuaz hitz egiteko baliatuko du Marie Hirigoien musikologoak; izan ere, musikaren kontzeptuak aztertuz, ondorioztatu du euskal kantuak, bereziki Ipar Euskal Herrikoak, badituela berezitasun batzuk kontuan izateko modukoak. Atzo azaldu zituen horiek, Kanterri ikastaroen azken egunean, Oiartzunen (Gipuzkoa), *XX. mendeko euskal kantua Iparraldean: aurkezpena, entzuketa, azterketa musikala eta berezitasunak* izeneko saioan —Jon Urzelai aritu zen haren aurretik, eta Ana Arsuaga *Verde Prato* ondoren—.

*Tenperamentua* da Hirigoienek azaldu dituen kontzeptuetako bat; garrantzitsuena, abiapuntua ulertzeko: horrela esaten zaio noten arteko aldea finkatzen duen sistemari. Gaur egun, *tenperamentu berdina* delakoa da nagusi: zortzi notak —dotik dorahamabi tonuerdi berdinetan banatzen dituen sistema. Musikologoak azaldu duenez, beti izan dira tenperamentuen inguruko eztabaidak, badirelako akustikoki doiagoak diren beste egitura batzuk. Dena den, tenperamentu hori dute egun instrumentu gehienek —eskusoinua, pianoa—, nahiz eta badiren bestelakoak ere, «erresistentzian sartu direnak» —txirula, gaita—.

Esan izan da euskal musikak tonu laurdenari jarraitzen diola: hamabi zati berdin horien erdiei. Baina Hirigoienek zalantzan ipini ditu adituek euskal musikaz idatzi izan dutenean haren ezaugarriez esan izan dituzten gauza batzuk —gaiari buruzko doktoregotesia egin zuen 2012an—.

Charles Bordesez hitz egin du, esaterako, haren lana azterketa askoren abiapuntua izan delako. Hark pneumetan erregistratu zituen euskal kantak —egungo sistema ezarri baino lehen musika idazteko erabiltzen zen sistema—, eta, horren bidez, Erdi Aroko musikarekin lotu zituen, gregorianoarekin. Hirigoienek ez du garbi ikusten: «Sistema horretan idazteak ez du esan nahi estetikarekin lotua dagoenik».

**«[Partituretan notak aldatzeak] Alimaleko mina egin zuen. Abeslariak ez ziren tronpatzen: beste sistema bat zuten»**

**«Kantatzeko beste manerak hiltzen ditugu, eta ez gara konturatzen zer askatasun eta berezitasun galtzen dugun»**

**Marie Hirigoien**
Musikologoa

Gainera, kontatu du euskal abestiak partituretan idazten zituztenek nota batzuk aldatzen zituztela maiz, kantatutakoa sistema estandar horretan sarrarazteko. «Horrek alimaleko mina egin zion euskal kantuari, ematen baitu haiena zela jakitatea. Gaur egun, badakigu abeslariak ez zirela tronpatzen: beste sistema bat erabiltzen zuten». Norberaren pertzepzioak badu eragina, *Lux aeterna*-ren entzunaldiak erakusten duen moduan: «Ezagutzen duguna bakarrik entzuten dugu».

Hirigoienek bata bestearen atzetik katigatu ditu XX. mendeko euskal musika aztertu zuten ikertzaileen proposamenak eta garai horietako grabazioak. Mende hasierako grabazioek interes handiagoa zuten hizkuntzan: 1900eko Pariskoerakusketa unibertsalaren garaikoek, Hubert Pernotenek... Gero, etnomusikologiaren bidetik, soinu eta irudi ugari jaso zituzten, 1947an.

Hitz egin du Resurrecion Maria Azkueren *Cancionero popular vasco* kantutegiaz ere. Haren testuek harremana zuten Bordesen lanarekin, nahiz eta Azkue gehiago tematu zen euskal musika mundu zaharrarekin lotzen, «herri zaharraren» iruditeria osatzeko asmoz, Hirigoienen esanetan.

Mende erditik aurrera, ohitura batzuk aldatu egin ziren: tresnez lagundutako kantua gailendu zitzaion ahots hutsezkoari, eta musikak beste funtzio batzuk hartu zituen gizartean. «Lehengo norbanakoaren kantua, biziarekin lotua zena, ostatuetakoa, desagertu egin zen emeki. Irratiak isilarazi zuen kantua», esan du hizlariak, Pierre Narbaitz apezak garai hartan idatzitakoa laburtzeko.

## Aldiro ezberdin

Ipar Euskal Herriko kantuaren berezitasuna ulertzeko, adibide bat ipini du Hirigoienek, soinuzkoa eta irudizkoa: *Goizean goizik* abestiaren hiru estrofaren partiturak, bata bestearen gainean, grabazio batean ahotsak egiten dituen soinu uhinak irudikatuz. Abeslariak hiru aldiz kantatzen du gauza bertsua, baina aldiro desberdin; lehen nota eta azkena toki berean daude, baina tartekoa ñabarduraz beteta ageri da. Ondorio hau atera du hortik: «Euskal kantuan, herri musika askotan, badugu askatasun bat. Eskalan, badira nota inportante batzuk, baina kantariak, ikusirik zer intentzio eman nahi duen, aldatzen ahal du; badu leku handi bat, non ibiltzen ahal den».

Sistema bat estandar bihurtzeak eta gizartean erabat zabaltzeak berarekin dakar jendearen pertzepzioa ere molde horretara egokitzea, azaldu duenez: «Pertzepzioa biziki normalizatua dugu: zer den zuzen, zer den faltsu». Izan ere, *a cappella* entzunez gero, edonork goza lezake kantaera horiekin, baina ohiko musika tresnekin elkartuta, emaitza oso bestelakoa da. «Emeki-emeki, jotzeko eta kantatzeko beste manerak hiltzen ditugu, eta ez gara konturatzen zer askatasun eta berezitasun galtzen dugun».

Izan ere, bizitza osoan sistema batekin ohitu eta gero, zaila da beste modu batera kantatzen ikastea —Hirigoien irakasle dabil, eta saiatzen da mundu zabalago bat transmititzen, kontatu duenez—. Uste du pausoz pauso egin behar dela bidea: lehenbizi, jakin badela beste modu bat, lurralde batean errotua egon dena; ondoren, aberastasun hori baloratu. «Hitzaldi batean, ikasle batek esan zidan beti pentsatu izan zuela bere aitatxik gaizki kantatzen zuela. Denborarekin konturatu zen ezetz, hark beste modu bat erabiltzen zuela, berak dagoeneko galdua zuena».



**Txuma Murugarren, Donostian eginiko aurkezpenean.** MAIALEN ANDRES / FOKU

# Nick Caveren gauerainoko bidaia

Txuma Murugarrenek euskarara moldatu du musikari australiarraren ‘Nocturama’ diskoa, ‘Gautegia’ lanean • Bilboko Izar & Star ziklorako egokitu zituen kantuak lehendabizi, 2014. urtean

**Mikel Lizarralde** *Donostia*

2014an, Txuma Murugarrenek euskarara moldatu zuen Nick Cave musikari australiarraren *Nocturama* (2003) diskoa, eta Javier Corral *Jerry* irrati esatari eta musika kritikariak Bilbon antolatzen zuen Izar & Star zikloan zuzenean aurkeztu. Lauzpabost emanaldi egin zituen proiektuarekin, baina, gerora, beste egitasmo batzuetan jardun zen. Orain, berriz, bederatzi urte igaro diren honetan, orduko moldaketak berreskuratu eta disko batean bildu ditu: *Gautegia* (Gaztelupeko Hotsak).

«Jerryk Izar & Star-erako proposamena egin zidanean, *Nocturama* aukeratu nuen, iruditzen baitzitzaidan oso disko moldagarria izan zitekeela», aitortu du Murugarrenek berak. «Diskoa oso gustukoa ere badut, baina, gainera, alde praktikoari begira, Rafa Aceves pianistarekin taularatzeko egokia iruditzen zitzaidan».

Orain dela gutxi, proiektua «betikotzeko» gogoa piztu zitzaion musikariari, eta Aceves ez ezik, Miguel Ramirez (baxua), Angel Unzu (gitarra), Oriol Flores (bateria) eta Gaizka Insunza (koruak) ere proiektura batuta, bi egunean ondu zuten diskoa. «Nahasketetan ukitu batzuk egin genituen, baina, funtsean, egun bakarrean grabatu genuen, eta uste dut hori nabari dela diskoan».

> **«[Kantuen hitzetan] Elurraren figura agertzen da askotan, isiltasunaren eta bakardadearen metafora gisa»**
>
> **«Batzuetan, gauzak egiten dituzu, eta iruditzen zaizu zure lana ez dela iristen nahiko zenukeen lekuetara»**
>
> **Txuma Murugarren**
> Musikaria

Caveren ibilbidean, disko «bitxia» da *Nocturama*, Murugarrenen iritziz. «Oso lirikoa da. Piano oso oinarrizkoak ditu, oso melodikoak». Hitzei dagokienez, bestalde, «elurraren figura agertzen da askotan, isiltasunaren eta bakardadearen metafora gisa». Castillo Suarezen *Alaska* poema liburua irakurtzen aritu da Murugarren azkenaldian, eta horko hainbat olerkitan ere azaltzen da elurra. «Iruditzen zait elurra oso irudi indartsua dela isiltasun berezi hori irudikatzeko». Caveren musikak berak giro hori laguntzen duela uste du Murugarrenek, nahiz eta ez den diskorik estimatuena kantariaren jarraitzaileentzat.

Hitzak euskaratzea lantegi «gaiztoa» izan dela aitortu du Murugarrenek, eta, hein batean, «askatasunez» heldu diola. «Hitzek errima daukate, eta errima oso gaiztoa da moldaketa bat egiten duzunean. Hitz batzuk itzul ditzakezu, baina itzulpen hori koadratu egin behar duzu daukazun tartean. Azken batean, silaba jakin batzuekin melodia horrek ematen dizun bideari eutsi behar diozu». Eta, horregatik, bide berriak bilatu behar izan ditu Caveren kantuen hitzek esaten dutena esateko. «Hark esaten duenaren inguruan mugitu naiz beti, hitzen esentziari eutsi nahian. Eta hori, jakina, ezinezkoa da hitzez hitzeko itzulpen bat egiten baduzu».

Ez da halako itzulpen lan bat egiten duen lehenengo aldia, *Lou Reed, mila esker* (2014) disko kolektiborako ere –hainbat euskal musikarik New Yorkekoaren kantuekin egindako bertsio lana– berak egin baitzituen itzulpen guztiak. Halere, lan hura «ezberdina» izan zen Murugarrenentzat. «Errazagoa izan zen, Lou Reedek ez duelako errimarik erabiltzen, ezpada oso kantu bakanetan».

*Nocturama* oro har disko lasai eta pausatua den arren, biltzen ditu kantu pare bat bortitzagoak, Caveren alderdi rockzalea azaleratzen dutenak: *Baby, I’m on Fire* eta *Dead Man in My Bed*. «*Baby, I’m on Fire*-ren euskarazko moldaketa (*Sutan nago*) piano eta gitarra hutsez ere egiten genuen Rafak eta biok, baina, Bilbo Hiria irratiaren urtemugako diskoan parte hartzea proposatu zigutenean, erabaki genuen baxuarekin eta bateriarekin grabatzea, eta sekulako indarra hartu zuen kantuak». Hain zuzen ere, grabazio hura da orain diskoan jaso dutena. *Dead Man in My Bed*, ordea, ez dute grabatu. «Nahiago izan dugu abesti lirikoetan zentratu». Beraz, *Nocturama*-k hamar abesti biltzen ditu, baina *Gautegia*-k bederatzi baino ez.

### Lozorrotik ateratzea

Orain dela zazpi urte kaleratu zuen Murugarrenek bere azkeneko disko luzea (*Zerbait ari da gertatzen, hor*, 2016), eta handik bi urtera single bat ere atera zuen (*Marmokak eta itsas izarrak*, 2018). Orduz geroztik, musika eszenatik aldendu samar ibili da, baina *Gautegia* grabatzeko lanak «lozorrotik ateratzeko» balio izan dio, aitortu duenez. «Garai oso arraroak izan dira azkeneko hauek. Eta, bestalde, [pandemia] garai horiek iritsi zirenerako ere, ni gogo gutxirekin nenbilen. Batzuetan, gauzak egiten dituzu, eta iruditzen zaizu zure lana ez dela iristen nahiko zenukeen lekuetara, edo ez duela behar besteko oihartzunik. Eta etsipen sentimendu bat ere nabaritzen duzu».

*Gautegia*-k berriro martxan jartzeko balio izan dio Murugarreni, eta jada idatziak ditu kantu batzuk. «Asmoa daukat hemendik gutxira, datorren urtean edo, nik idatzitako abestiz osatutako disko bat ateratzeko».

## Davidsenen performancea Artium museoan

**PERFORMANCEA** • Yael Davidsenek *A Daily Practice with Works from the Collection* performancea taularatuko du, bihar eta etzi, Gasteizko Artium museoan. Bi saioetan hamabi lagunentzako lekua izango da, eta aurretik izena eman behar da. Davidsenen proposamena Artium museoaren bildumari lotuta dago, eta *Lotura mekanikoak* zikloaren barruan aurkeztuko dute.

## Haziberri jaialdia egingo dute Gernika-Lumon

**MUSIKA** • Haziberri musika jaialdia egingo dute ostiralean Gernika-Lumon (Bizkaia), eta hartan parte hartuko dute Zea Mays taldeko Aiora Renteriak eta Iñaki Imaz *Piti*-k, eta Jon Maiak. Hain zuzen ere, azken horren *Kantu bat gara* diskoaren aurkezpen biraren azken kontzertua izango da. Eire, Mogumbo eta TPR Brass Band taldeek ere joko dute Haziberri festibalean.



**Jon Maiak *Kantu bat gara* diskoa aurkeztuko du.** ANDONI CANELLADA / FOKU

## 21.000

**ZENBAT IKUSLE BILDU DITUEN LEKEITIOKO KALEKA-K**

Joan den asteburuan egin dute Kaleka kaleko arteen Lekeitioko jaialdia, ostiraletik igandera bitarte, eta antolatzaileek jakinarazi dute 21.000 ikusle batu direla hartan. Aurten, Euskal Herriko, Herrialde Katalanetako, Espainiako eta Portugalgo 11 konpainiak parte hartu dute jaialdian, baina izena eman dutenak 400 izan dira guztira.

**PROPOSAMENAK**

# Jazz musikak ez du adinik

Txikijazz jaialdiak Donostiako zenbait leku hartuko ditu uztaileko azken astean, haurrek ere jazz musikaz goza dezaten • Paula Estevez diseinatzaileak sortu du aurtengo kartela

**Igone Urtaza** *Donostia*




**2021ean, maskara jarrita gozatu behar izan zituzten kontzertuak.** GORKA RUBIO / FOKU

1 Jazz musikak ez du mugarik, ezta adinik ere. Donostiako Jazzaldiaren antolatzaileek argi dute hori; izan ere, Donostiako 58. Jazzaldiarekin batera, Txikijazz haur eta familientzat antolatutako jaialdiaren hamaikagarren aldia egingo dute aurten. Bi helburrurekin sortu zuten proiektua: batetik, haurrek eta familiek musikarekin eta artearekin gozatzea; bestetik, musikaz elkarrekin gozatzeko eta ikasteko gune bat eratzea. Aurreko urteetako arrakasta ikusita, aurten ere hala izatea espero dute antolatzaileek.

Uztailaren 21etik 25era bitartean egingo da Txikijazz. Hiru eremutan banatu dituzte jaialdiko ekintzak: Kutxa fundazioaren Kutxa Kultur plazan, Txillida Lekun eta Garbera saltoki handian. Jaialdiak zortzi kontzertu, magia ikuskizun bat eta askotariko adin tarteei egokitutako tailer ugari programatu ditu. Ekintza guztiak euskaraz izango dira, eta antolatzaileek euskararen erabilera bultzatu nahi dute.

Kontzertuen eskaintza zabala da. Jaialdian joko dute Frantziako Les Cuisinieres taldeak, Sara Dowling bakarlari ingelesak, Michelle Hendricks & Ronald Baker Project bikoteak, Five Stars taldeak, Eri Yamamoto bakarlari japoniarrak eta Euskal Herriko Amaika Rude taldeak. Kontzertu guztiak doakoak izango dira. Txillida Lekun programatutakoak dira salbuespen bakarra. Sei euro kostatuko dira. Sarrerak salgai daude jada. Horiek eskuratzeko, Viktoria Eugenia antzokiko leihatila irekita egongo da 11:30ean. Horrez gain, Txikijazzen eta Donostia Kulturaren webguneetan ere eros daitezke.

### Haurrentzako tailerrak

Musikaz gain, haurrek eta gurasoek elkarrekin parte hartzeko tailerrak ere egingo dituzte. Lehenengo egunean, uztailaren 21ean, aurpegia margotzeko tailerra izango dute 11:30ean. Ondoren, 12:30erako, Iago Azkue magoaren ikuskizuna dago antolatuta. Azpeitiarra da Azkue, 2003an jaioa. Bi ekintza horiek Garbera saltoki handian izango dira.

Uztailaren 25ean ere, Txikijazzen azken egunean, tailerrekin hasiko da eguna. 11:00etarako eta 11:30erako *Jazz- eta musika-tresnak sortzen* eta *Ur-makilak* tailerrak antolatu dituzte. 0 eta 11 urte bitarteko haurrentzat eta familientzat prestatuta daude. 0 eta 8 urte bitarteko umeek heldu baten laguntza izan beharko dute tailerrean parte hartzeko, nahi eta nahi ez. Bi kontzertu izango dira eguerdian: Les Cuisinieres eta Amaika Rude. Kutxa Kultur plazan eta Garbera saltoki handian izango dira eguneko ekintza guztiak.

Aurtengo kartela Paula Estevez diseinatzaile eta ilustratzaileak sortu du. Kartela sortzeko garaian, jaialdiko protagonistak nabarmendu nahi izan ditu ilustratzaileak, hain zuzen: umeak eta jazz musika. Horretarako, musika tresnak jotzen ari diren umeak marraztu ditu, baina intsektu itxura eman die. Txillida Leku museoko naturagunean inspiratuta dagoenez, hosto eta adarren gainean eserita eta zintzilik daude kartelean ageri diren haurrak.

**Txikijazz**
Uztailaren 21etik 25era bitartean, Donostian.




## Jaiak
Konpartsakideen eguna

2 Tradizioz betetako Konpartsakide Eguna ospatuko dute Bilboko Konpartsek larunbatean, Bilboko Areatzan. 11:30ean hasiko dituzte ekintzak: pintxo lehiaketa, ardo dastaketa, *Gastrotxiki* ekitaldia, konpartsen bazkaria, elkarlan uholdearen tourra eta barazki eta sagardo banaketa bildu dituzte programan. Bazkalostean, bingo musikatuaren ostean, Urrats taldearen erromeriarekin amaituko da eguna.

**Konpartsakide Eguna**
Larunbatean, Bilboko Areatzan.

## Musika
Estilo anitz Uxuen

3 Uztaileko eta abuztuko larunbat batzuetan zuzeneko musikaz gozatzeko aukera izango da Uxuen (Nafarroa). Gaubelan izena du programak. Artistek bertsioak eta abesti propioak joko dituzte. Askotariko musika estiloak entzuteko aukera izango da: popa, pop flamenkoa, boleroak, rantxerak...

**Gaubelan kontzertu zikloa**
Uxuen, uztailaren 15ean eta 22an, eta abuztuaren 19an eta 26an, 21:00etan.




**Jendea Bilboko Guggenheim museora sartzen, ostiral goizean.** OSKAR MATXIN EDESA / FOKU

Turisten jopuntu izaten dira Bilboko erakustokiak. Guggenheimen eta Arte Ederren Museoan, etengabeak dira sartu-irtenak; bildumak erakartzen ditu, edota eraikinak.

# Kontenplaziorako Bilbo bat

**Amaia Igartua Aristondo** *Bilbo*

Tanto gorriz josita dago Bilboko Guggenheim museoaren aldameneko urmaela. Hormigoizko zubiak, titaniozko xaflek eta Anish Kapoorren eskultura metaliko distiratsuak inguratuta, are deigarriagoak ikusiko ziren orbanak helikopterotik, grisean gailen. Zerutik begiratuta, esku hartzeak Frantziako Tourraren diseinuaren antza du; lurretik, baina, eta lasterketatik astebetera, hobeto irakur liteke tantoetako batean zuriz idatzita dagoena: *Yayoi Kusama*. Museoaren inguruetan, ziklistarik ez dago jada, bisitarien joan-etorri etengabeko eta patxadatsu batek ordezkatu du jendetza zaratatsua, eta turisten kamerek museoa dute jomuga. Guggenheimek arreta berreskuratu du.

Badu zer erakutsi. Kusamaren ibilbide oparoa, esaterako, kolore eta forma bizietan bermatutako laurogei bat urteko atzera begirakoa; edo bidaia espresionista bat Oskar Kokoschkaren artelanetan barrena; edo Lynette Yiadom-Boakyeren erretratu indartsuak. Baina eskaintza gorabehera, bertoko obrek erakarri dituzte gehienbat Kaliforniako (AEB) Carolina Swaney eta Andrea Ford. «Niri gehien gustatu zaidan zatia goiko aldekoa izan da, Bilborekin lotura handiagoa duen bilduma», esan du Swaneyk. «Beste hiri bat bisitatzen dudanean, nahiago dut leku horretako kultura ikusi, eta ez handik kanpoko artisten erakusketak».

Kritikoagoa izan da Yolanda Sacristan Felipe. «Pinturen zatia adar jotze bat iruditu zait. Auzo bateko erakusketa aretoan ikusiko balituzte, gaizki eginak daudela esango lukete». Harekin bat agertu da senarra, Fredesvindo Correas Quiralte, baina «bai, bai» apal batekin adierazi du adostasuna, eta andreak garatu du ikuspuntua. «Ez daukate proportziorik, ez daukate lerro on bat, ez daukate perspektiba on bat. Kusamaren alde psikodelikoa interesgarria da, baina gainontzekoa txarto eginda dago».

Bilbo bisitatzera etorri dira egunotan, Cuidad Realetik (Espainia), beren seme-alabekin, Fredesvindo Correas Sacristan eta Blanca Correas Sacristan. Turismoa egiten dutenean, museoetara joan ohi dira –Parisko bidaia oroitu dute, hango Louvre eta Orsay erakustokiak–, artelanak behatzeko, bai, baina eraikinek erakarrita, batik bat. Guggenheimi dagokionez ere, haien interes nagusia arkitektura zen, eta horrek ez die hutsik egin, Sacristanek nabarmendu duenez, zirraraz. «Eraikinak harritu egin nau. Gustuko dugu nola dagoen kokatuta, nola dauden landuta materialak, hala kanpotik nola barrutik. Oso kuriosoa da nola dauden eginda gauza batzuk: erortzen ari direla ematen duten tantak, merkurio tantak diruditenak zoruan...».

Eta, barruan ere, atondo garai eta areto zabalez gain, begiz jo dituzte beste egitura batzuk, Richard Serraren *Denboraren materia* eskultura sorta, bihurritutako Corten altzairuzko labirinto erraldoiak. Seme-alabak txunditu egin ditu, baita gurasoak ere. Sacristan: «Izugarria da nola dauden eginda, nola dauden tolestuta eta finkatuta».




**Bilboko Arte Ederren Museoaren inguruak, ostiralean.** O. MATXIN EDESA / FOKU

**Ezustekoak animatuta**

Ezberdina da guztiz. Gainezka egin duten formak dirudite Guggenheimenak, eta, aldiz, eutsiagoak dira Arte Ederren Museoaren lerroak eta angeluak, diskretuagoak eraikin zaharraren koloreak. Eta, hala ere, orobat izan litezke amu bat goiz lasai batean, inguruan pasieran ibili beste planik ez duten bisitari aspertu batzuentzat, Bilbon estreinakoz dauden turistentzat. «Fatxadak atentzioa eman digu, eta kuriositatez sartu gara», adierazi du Maria Luisa Muñozek. «Marrazki batzuek harritu naute; oso ondo eginak daude. Teologiako kontakizun batzuk islatuta daude, eta oso errealak dirudite». Arte garaikidearekiko ikusmira ere erakutsi dute, dena den. «Alanbreekin egindako emakume figura bat» aipatu du Jesica Toscanok: Dora Salazarren *Tejer II* eskultura, hain justu.

Kontrara, aspaldian egiteko zuen bisita Estibaliz Mendez bilbotarrak, eta zorra kitatzea erabaki du, orain sarrera doakoa dela aprobetxatuta. «Arte Ederrak ikasi nituen, eta gustatzen zait museora etortzea, baina alferkeria ematen dit», bota du, neke itxurarekin, eta eskulturen erakusketa murgiltzaile batek utzitako «txikitasun» sentsazioz blaituta. Tourraren egunetan etxean gelditu zen, eta Bilbo apalago batek eman dio oraingoan irteteko hauspoa.



**Iruñeko erraldoien konpartsa Alde Zaharreko karriketan gora eta behera ibiltzen da egunero. Irudian, haurrak Braulia erraldoiarekin.** JAGOBA MANTEROLA / FOKU

Sanferminetan, gaztetxoek ere jostatzeko era anitz dituzte. Erraldoien konpartsa da denetan ezagunena, baina badira familian gozatzeko beste zenbait aukera ere.

# Irri txikiak, zirrara erraldoiak

**Ion Orzaiz** *Iruñea*

Caravinagre, Caravinagre! *Selfie* bat, mesedez!». Garai batean haurren artean beldur handiena eta negar zotin kontsolaezinak sortzen zituen kilikia rock izar bihurtua da azkenaldian. Haurren atzean korrika eta maskuriarekin joka baino denbora gehiago ematen du Caravinagrek argazkietarako paratzen eta ume txikiei musu ematen. 163 urte bete berritan, Iruñeko erraldoien eta buruhandien konpartsak ez du galdu neska-mutikoak erakartzeko ahalmena. Aitzitik, inoiz baino arrakasta handiagoa du txikienen artean.

Izan ere, helduentzako aisialdiaren inguruan eraikitako festak izanagatik —alkohola, entzierroak, parranda ordu txikiak arte...—, gazteenek ere badute sanferminez gozatzeko abagunerik, eta erraldoien konpartsa da horietako bat.

«Denetik egiteko aukera dago sanferminetan; gu saiatzen gara helduentzako festa uztartzen txikientzako ekitaldiekin», azaldu du Aiora Ganuza iruindarrak. Udaletxe plazaren eta San Saturnino kalearen arteko bihurgunean ari dira segizioa ikusten. Bigarren eguna dute erraldoien konpartsaren atzetik, eta aldea nabaritu dute: «Jende gehiegi ibili da kalean asteburuan, baina badirudi apur bat hustu dela hiria azken egun hauetan. Etxekoak soilik gabiltza orain, askoz erosoago txikiekin kalean egoteko». Haren bi alabak, Deba (7 urte) eta Elbire (5) gustura dabiltza, Braulia erraldoi amerikarraren erritmoan dantzan.

Metro batzuk aurrerago, Kale Nagusian, Patata, Coletas eta Napoleon kilikiak xaxatzera eta gero amaren atzean ezkutatzera jostatzen ari dira Maddi (11 urte), Ane (10), Arai (6) eta Inhar (4) lehengusu-lehengusina zizurtarrak. Erraldoiak maite dituzte, baina kilikiak are gehiago. «Oraindik ez naute harrapatu», esan du Araik, irribarre maltzurrez.

### Erregeen jantzi berriak

Kondestablearen jauregiaren aurrean, bals bat dantzatzen hasi dira erraldoiak, bikoteka. Mario Bustintze burlatarra (4 urte) ahoa bete hortz dago, figura handien mugimendu kulunkariari so. «Arropa berriak dituzte. Oso politak dira», esan du. Ez da ohartu den bakarra. Toko-toko eta Braulia erraldoi amerikarrek soineko, gerriko eta eskumuturreko berriak estreinatu dituzte aurtengo sanferminetan.



**Haurrak, Taconera parkeko Birjolastu gunean, jolasean.** IÑIGO URIZ / FOKU

Izan ere, konpartsako erraldoi guztien jantziak berritu ditu erraldoi eta buruhandien konpartsak, urte gutxian. Bikoteka egin dute, gainera: Europako erraldoienak berritu zituzten duela hiru urte; Asiako bikotearenak, duela bi; iaz, Afrikako erraldoiei aldatu zizkieten; eta aurten, berriz, amerikarrei.

**Euskararen arrasto oro ezabatu du udalak haur eskaintzatik: Birjolastu gunea 'Rejuego' da orain, eta Kirol Ari, 'Sportkids'**

Alde Zaharreko karrika estuak atzean utzita, Taconera parkeko zuhaitzen gerizpea bilatu dute familia askok. Han dago Birjolastu, udalak haurrentzat propio prestatutako hiru guneetako bat. «Birziklatutako materialak soilik erabilita, sormenezko jokoak eskaintzen ditugu, familientzako aisialdi gune batean», azaldu du Luis Bordonadak, Birjolastu guneko arduradunak. «Arrakasta itzela izan dugu orain arte, gunea bera ederra delako, hiriaren erdigunetik gertu, baina festaren zaratatik aldenduta; oasi txiki bat», laburbildu du.

Eskaintzen dituzten jokoei dagokionez, Bordonadak nabarmendu du «askotariko proposamenak» egiten dituztela: «0-3 urteko ume txikienek badute gurasoekin lasai egoteko toki bat; helduxeagoek aukera dute eskulanak egiteko, edo gurpilekin lasterkan aritzeko edo joko fisikoagoetan aritzeko...».

### Euskara, programatik at

Hiriaren beste muturrean, Media Luna parkean, kirol jokoetan oinarritutako eskaintza egin du udalak, Kirol Ari gunean. Hauek Festak Hauek espazioan, berriz, puzgarriak eta trebezia jokoak bildu dituzte. Horietan guztietan, baina, hutsunea berbera da: euskararena. Iruñeko Udalak euskararen arrasto oro ezabatu nahi izan du aurten haurrentzako programaziotik. Baita guneen izendapenetik ere. Hala, Birjolastu gunea *Juego Rejuego* da udal komunikazio guztietan, euskarazko ordainik gabe; Kirol Ari, *Sport-Kids*; eta Hauek Festak Hauek, azkenik, *Menudas Fiestas*.




**Europako erregina *Polonesa* dantzaren erritmoan itzuliak ematen, iaz, uztailaren 14ko azkenengo agurrean, Iruñeko Udaletxe plazan.** JAGOBA MANTEROLA / FOKU

Erraldoien agur dantza polonesa bat da, eta melodia 1970eko hamarkadan ekarri zuten, Iruña Taldeak Alemaniara egindako bidaia batetik. Iruñean erabat errotuta dago musika hori.

# 'Polonesa', Alemaniatik Iruñera

**Iker Tubia** *Iruñea*

Erraldoien dantza. Iruindar askorentzat horixe da *Polonesa* musika. Melodiaren lehenbiziko notak aditzearekin batera, itzulika hasten dira haurrak, erraldoiak balira bezala. Haiek agur esateko baliatzen dute kanta, eta hirian oso errotuta dago. Hainbeste, hitzak ere paratu baitzizkion Ene Kantak taldeak, eta are gehiago zabaldu Euskal Herriaren luze-zabalean. Askok uste dutenaren kontra, melodia hori ez da Iruñeko erraldoiena; jatorria, behinik behin, ez du Iruñean. Iruña Taldeko dantzariek Alemaniara egindako bidaia batean ezagutu zuten, eta Euskal Herrira ekarri, 1970eko hamarkadan. Baina ez zuten inolaz ere pentsatuko sanferminetako kanturik ezagunenetako bat izanen zela hura. Hain dago errotua, Iruñeko erraldoien agurreko dantza dela esan baitaiteke jada.

Euskal Herriko dantza taldeek bidaia anitz egin dituzte munduan barrena euskal dantzak erakusteko. 1970eko hamarkadan, Thule hirira bisita egin zuen Iruña Taldea kultur elkarteak. Garai hartan, Iruñeko gaiteroekin harreman estua zuten, eta haien emanaldietan gaitekin egiten ziren dantzen doinuez arduratzen ziren. Bidaia hartako oroitzapen ederrak dituzte Iruña Taldekoek eta Iruñeko gaiteroek.

Jose Luis Fraile Iruñeko gaita jotzailea da, eta bidaia horietara joan zen. Oraindik ere erraldoien atzetik ibiltzen da egunero gaita jotzen. Kontatu duenez, folklore jaialdi horretan zenbait herrialdetako hogei talde aritzen ziren, eta dantzari anitz biltzen ziren, hirurehun edo gehiago.

## Gazteluan sartzea

«Bazkaltzeko, Webelsburgeko gazteluan elkartzen ginen denak, eta dantza bat eginez sartzen ginen», gogoratu du. Orduan hasten zen melodia hura, motel. Patioan dantza egiten zuten lehenik, iturri baten moduko koreografia, eta gehituz joaten ziren: lau, gero zortzi, gero hamasei... Azkenean, binaka paratzen ziren, eta erritmoari jarraikiz sartzen ziren bazkaltzeko aretoan. «Musika hori aditzen zen etengabe. Zeremonia kutsua zuen ekitaldi hark; polita eta dibertigarria zen».

Folklore topaketa hartan, herrialde guzietako taldeek musika partekatzen zuten besteekin, eta koaderno batzuetan biltzen zuten. Partitura bazuten, eta melodia buruan iltzatuta. «Musika horrekin bat egin genuen nolabait. Ez dakit zergatik, bat-bateko kontua izan zen: autobusean bururatu zitzaigun musika hori sanferminetan jotzea erraldoiekin batera». Moldaketa txiki batzuekin iruindartu zuten *Polonesa*: «Zeremonia kutsuko musika hori motel jotzen zuten, baina martxa pixka bat ematen badiozu...». Kantuan hasi da. «*Polonesa* grazia ukitu dibertigarri bat izan zen».

> **'Polonesa' gure ekarpen txikia izan zen, baina ez genuen inolaz ere pentsatuko hau gertatuko zenik»**
>
> **Jose Luis Fraile**
> Gaiteroa

Ez dakite doinu horren jatorria zein den. «*Polonesa* poloniar jatorrikoa da, baina Europako erdialdean oso zabaldutako dantza da; beraz, doinu hau alemaniarra izan daiteke, lasai asko».

## Dantzan hasi ziren

«Erraldoiak dantzan daude, kilikiak jotzen». Hala esaten dute Ene Kantak taldeak *Polonesa*-ri paratutako hitzek. 2015ean plazaratu zuten, eta haurrek berehala bere egin. Baina 1970eko hamarkadan erraldoiek ez zuten dantzatzen orain egiten duten moduan. Frailek kontatu duenez, «jarrera militarra» zuen udaltzain batek gidatzen zuen konpartsa, eta langile jendeak eramaten zituen erraldoiak, «beharra» zutenek. Are, sanferminetan bestelako lanak egitea egokitzen zitzaien.

«Lehen, ez zekiten erraldoiak dantzatzen; eraman egiten zituzten. Ahal zutena egiten zuten», zehaztu du Frailek. «Bestela mugi zitezen nahi genuen». Hala, Angel Larunbe hasi zen «beste izpiritu bat» ematen konpartsari, dantzatzeko manera ezarrita. Fraile kontent agertu da: «*Polonesa* gure ekarpen txikia izan zen, baina ez genuen inolaz ere pentsatuko hau gertatuko zenik».



**HAUTESKUNDE XANPAINA**
Joxerra Senar

## *Sergio Super Sayas itzuli da*

Sare sozialetan Sergio Sayasek bazuen bere *alter ego*-a: Sergio Super Sayas, Son Goku saijajinaren abatarrarekin. Baina behin tabakoa erostera joan zen, eta ez zen berriz itzuli Twitterrera. Sayas errealarekin konformatu beharko. Zer egingo diogu, ba! Baina... Eta... Benetan baztertu al duzue Sergio Sayas zegoela kontu horren atzean? Oker zaudete, horren froga grafikoak ditugu.

Hauteskunde xanpainaren barnean, Sergio Sayasek goizetako ekitaldi xume horietako bat deitu du gaur goizean. Gaia: *Espainia ala hil, sanchismoaren aurkako gurutzada*. Jarauta aukeratu du kanpainan egunero egin ohi duen pilulatxo politikoa laburbiltzeko. Ondoren, bertan kazetari itxura duten batzuei galdetu die ea nahi al duten *canutazo*-rik. «*Canutazo*? Tori *canutazo*», erantzun diote, eta Jamaikako belarrik onenarekin osatutako tronpeta eman diote erretzeko. Namek-en Gokuren ileari nola, halaxe horitu zaizkio azala eta begiak Sergiori. Superbotere berriak eskuratu al ditu?

«*Be water, my friend*». Bob Marleyren kanten tonuan, oso motel eta bare, mintzatzen hasi da orain. Ingelesez. Euskaraz, oraindik ez. Gehitxo eskatzea litzateke ziurrenik. Horretarako superjajinen hirugarren faseko boterak eskuratzeko entrenatu beharko da barnetegiren batean. Harrigarriena da bere oldarkortasun politikoa desagertu dela. Denak dira bere lagunak. Javier Esparza? «Nire betiko laguna». Maria Txibite eta Uxue Barkos? «Nire lehendakariak». EH Bildu? [...] Duda egin du, lipar batez betiko Sayas agertu da, baina jarraian esan du: «Zer nintzateke ni haiek gabe?». Sergio Super Sayas ez zen tabakoa erostera jaitsi. Erretzera jaitsi zen. Eta itzuli da!!

## EGURALDIA

**GAUR**
**Max.:** 27°. **Min.:** 16°.

**BIHAR**
**Max.:** 27°. **Min.:** 15°.

## KONPARTSEN IBILBIDEA

Ezpeleta jauregia, Kale Nagusia, Jarauta kalea, San Saturnino, Udaletxe plaza, Mercaderes, Mañueta, Jauregiko Aldapa, Maiatzaren Bia, Carmen, Nabarreria, San Jose plaza —atsedenaldia eginen dute Salsipuedes kalean, 11:30etik 12:30era—.
Atsedenaldia bukatuta, Curia kalea, Mercaderes, Txapitela, Gazteluko plaza, Karlos III.a etorbidea, Gazteluko plaza, Sarasate pasealekua, San Migel kalea, San Frantzisko plaza, Eslava kalea, Kale Nagusia eta Ezpeletaren jauregia.

## FERMIN LINE

**Euskaldunen bazkaria eginen dute Maiatzaren 2ko plazan, zenbait euskal elkartek antolatuta. Ondoren, *eromeria*.**

IÑIGO URIZ / FOKU

# GOGORRA DA SANFERMINETAKO PENITENTZIA



#MEMELOAK

## EUSKAL EGITARAUA

**12:00.** Puzgarriak, Santa Ana plazan.
**12:30.** Luciano, Bronce peñan.
**12:30.** Trikipoteoa, Alegria peñan.
**15:00.** Euskaldunen bazkaria, Maitzaren 2ko karrikan. Ondoren, *eromeria kolosala*.
**17:00.** Tok DJa, Unica peñan.
**18:00.** Elektrokela, Oinez txokoan.
**18:00.** Zaragueta DJa, Bullicio peñan
**18:00.** La Topadora, Alegria peñan.
**18:30.** Pezon DJa, Laban.
**18:30.** Biziraun erromeria, Muthiko Alaiak peñan.
**19:00.** Gau tropikala, auzoko eragileen eskutik, Matalazen.
**20:00.** Tekno gaua: Aimajr Lekun, Kaiko eta Señora Tetas DJak, Gallego ostatuan.
**21:00.** Haizkan, Oinez txokoan.
**22:00.** Zamburiñak, Monton ostatuan.
**23:30.** Muga Zero, Oinez txokoan.
**00:30.** Elektrotxandaka, Unica peñan.

## EGUNEKO EGITARAUA

**06:45.** Dianak. Pamplonesa udal musika banda, Txapitela kaletik abiatuta.
**06:45.** Musika bandak, Zezen plazan.
**08:00**. Seigarren entzierroa, Jandillaren sei zezenekin.
**09:30**. Erraldoiak eta buruhandiak. Irteera, Ezpeleta jauregitik.
**10:45.** Adinekoendako meza, San Fermin kaperan. Armonia errondailak joko du.
**11:00.** *Sport Kids*, Media Luna parkean. Kirol eta aisialdiko gunea, 13:30ak arte.
**11:30** Haurrendako jarduera, Salsipuedes kalean. Erraldoien kontsaren atsedenaldian.
**11:30.** *Hauek festak, hauek* gunea Askatasunaren plazan. Haurrendako jarduerak 14:00ak arte.
**11:30.** Birjolastu, Taconera parkean. Haurrendako jolasgunea 14:00ak arte.
**11:30.** Literatur ibilbidea: *Hemingwayren arrastoan*, La Perla hoteletik abiatuta –gaztelaniaz–.
**11:30.** Musika kalean, Udaletxe plazatik.
**12:00.** Jotak, Sarasate pasealekuan. Jus La Rocha eta Yoar errondailak.
**12:00.** Herri kirolak, Foruen plazan. Lehiaketak eta erakustaldiak.
**12:00.** Musika kalean, San Lorentzo eta Descalzos kaleetatik abiatuta.
**13:00.** Aranguren ibarreko musika banda, Gurutzeko plazan.


Gaur adinekoen eguna da. Irudian, adineko bi andre, tonbolan. J. MANTEROLA / FOKU

**17:30.** Birjolastu, Taconera parkean. Haurrendako jolasgunea 20:30 arte.
**18:00.** *Hauek festak, hauek* gunea Askatasunaren plazan. Haurrendako jarduerak 21:00ak arte.
**18:00.** Sport Kids, Media Luna parkean. Kirol eta aisialdiko gunea, 20:30ak arte.
**18:30.** Literatur ibilbidea: *Hemingwayren arrastoan*, La Perla hoteletik abiatuta –gaztelaniaz–.
**19:00.** Tardeo, Foruen plazan. Javi Varez DJa.
**19:00.** Gazte eremua, Konstituzio plazan. Animazioa, jolasak, puzgarriak, lantegiak eta musika emanaldiak 22:30ak arte.
**19:00.** Dantzaldia, Antoniutti parkea. Enigma DJa eta Versus orkestra.
**19:00.** Al Tran Tranen *Trovadores urbanos*, Kondestablen.
**20:00.** Raimundo El Canastero, Compañia plazan.
**20:00.** Txotxongiloak, Askatasunaren plazan: Teatro Firulete –gaztelaniaz–.
**20:30.** Mocedades, Gurutzeko plazan.
**21:00.** Dantzaldia, txistu eta gaita, Gazteluko plazan.
**21:00.** Kalejira, Karlos III.aren etorbidean: *Pintoresco safari*. Kamaru antzerki konpainiaren eskutik.
**21:45.** Zezensuzkoa. San Domingo kalea, Udaletxe plaza eta Kale Berria.
**23:00.** Su artifizialak. Fireworks Ugo Lieto Events su-etxea (Italia).
**23:30.** Sound Fermin, Foruen plazan. Oihan Vega DJa.
**23:30.** Robert Finley, Compañia plazan.
**23:30**. Dantzaldia, Gurutzeko plazan. Euro Cuartet orkestra.
**23:45.** En Tol Sarmiento ETS, Gazteluko plazan.
**00:00.** Musika kalean, Udaletxe plazatik.













❶ **Zezensuzkoa, gauero.** Goizez zezenak, eta gauez zezensuzkoa. San Domingon elkartzen dira umeak txinpartadun zezenaren aurrean korrika egitera.
JAGOBA MANTEROLA / FOKU

❷ **Feministen bazkaria.** Feministek bazkaria egin zuten atzo, giro onean. IÑIGO URIZ / FOKU

❸ **Babelgo dorrea.** Edalontziekin dorre bat osatu du gizonak, eta oreka bilatzen trebea dela erakutsi du. IÑIGO URIZ / FOKU

❹ **Beroaren aurkako antidotoa.** Zer hoberik ura baino beroari aurre egiteko? Gazte hauek Argan topatu dute lekua freskatzeko.
JAGOBA MANTEROLA / FOKU



1

# Usain Nuñez del Cuvillo Bolt

Bezperan Fuente Ymbroko zezenek ezarritako marka errepikatu dute, eta bi minutu eta 21 segundo behar izan dituzte • Ez da adarkaturik izan, eta bi zauritu izan dira, San Domingon eta Mercaderesen

**Joxerra Senar** *Iruñea*

Usain Bolt jamaikarra da munduko gizonik azkarrena. Hala da oraindik ere. Oso bizkorra zen 100 metroko lasterketan, eta are bizkorragoa 200 metrokoan. Michael Johnson estatubatuarra ere atleta bikaina zen. Ikusgarriak ziren biak, nola egiten zituzten berrehun metroak euren sasoirik hoberenean, mailarik gorenean. Alta, bi atletek nekez eutsi ahalko zioten Nuñez del Cuvilloko zezenek lehen berrehun metroetan ezarritako erritmoari. %6ko pendiza ziztu bizian egin zuten. San Domingoko aldaparen erdialdean, joaldunekin gogaituta-edo, taldearen gidaritza hartu, eta abiada ikusgarrian egin zituzten Mercaderesko bihurgunera arteko 413 metroak. Amaieran, bezperan Fuente Ymbroko zezenek egindako marka errepikatu zuten.

Nahiz eta aurrean duten bide hori ezagutu ez, zerk eramaten du zezen bat maldan gora besteen aurretik jartzera? Gau osoan Arrotxapeko barraken burrunba jasan ostean, ingurune arrotz horretan, zerk bultzatzen du aurrerantz? Ziurrenik, handik ihes egiteko instintuak eramaten ditu horretarantz. Atzokoan, Nuñez del Cuvillokoak grina horrek eraman zituen aurrerantz. Beste behin, halako mirari bat gertatu zen, San Domingo aldaparen goialdean gizon bat taldearen erdialdera atera zelako, auskalo zergatik. Joaldunak jo zuen, eta zapaldu. Okerrago izan zitekeen.

Hain zihoazen azkar Mercaderesen, ezen aurrealdeko bi zezenak bihurgunera indar handiz iritsi zirela, eta haietako batek oholtzaren aurka egin zuela talka, bortxaz. Besteak aurrerantz jo zuen, lasterketa batean balego bezala, eta Estafetako lehen metro horietan, lasterkariei ezinezkoa zitzaien zezen haren erritmoari eustea.

### Estafetan, sakabanaturik

Alta, korrikalariek gogoko izaten dituzten hutsuneak sortu ziren, ezarritako abiaduraren ondorioz sakabanatu egin zelako taldea, zezenen artean korri egiteko aukera emanez lasterkariei. Arriskua, baina, maiz korrikalariek eurek eragiten dute. Zezenaren alboan jarriz eta hura ukituz: buztana dela, adar bat dela, haren gorputz gihartsua dela... Aurreko entzierroetan bezala, baina, atzoko zezenek ez zuten inongo mehatxu keinurik egin, eta aurrerantz jo zuten, inguruneko oztopoei jaramonik egin gabe.

Nahiz eta aurreko egunetan baino jende gutxiago izan, horrek ez du esan nahi parte hartzaile gutxi zenik. Amaiera aldera, hainbat erorialdi eta pilaketa izan ziren, baina zezen galdurik izan ez zenez, ez zen arrisku handirik izan. Plazara sartzekoan, erorialdiak eta estualdiak izan ziren, baina ze-


2

**ENTZIERROA**

Nuñez de Cuvillo
(Cadiz, Espainia)

| | Adark. | Denb. |
|---|---|---|
| 1. | 0 | 2.32 |
| 2. | 1 | 2.23 |
| 3. | 1 | 2.52 |
| 4. | 0 | 2.21 |
| 5. | 0 | 2.21 |
| 6. | | |
| 7. | | |
| 8. | | |

San Domingoko ukuiluak
San Domingo kalea — Zauritu bat.
Udaletxe plaza
Mercaderes kalea — Zauritu bat.
Estafeta kalea
Telefonica aldea
Kailejoia
Zezen plaza


3


4

❶ **San Domingon, oso azkar.** Aldaparen erdialdera bi zezen horiek hartu zuten aldea, eta erritmo bizian egin zituzten lehen metroak. IÑIGO URIZ / FOKU
❷ **Mercaderesen, talka.** Gaztaina koloreko Pesadillo zezenak oholtzaren aurka egin zuen, gogor. Haren kideek aurrera jarraitu zuen. IÑAKI BERGARA / FOKU
❸ **Estafetan, hutsuneak.** Estafetan hutsuneak sortu ziren. JESUS DIGES / EFE
❹ **Amaieran, bakarrik.** Zezen bakoitza bakarrik heldu zen. JAGOBA MANTEROLA / FOKU

zenek zuzen jo zuten euren heriotzarantz.

Amaieran, bi lagun ospitaleratu zituzten. Batetik, 45 urteko kataluniar batek buruan kolpe handia hartu zuen Mercaderes aldean. San Domingon, berriz, 35 urteko estatubatuar batek hartu zuen kolpea. Atzokoa bosgarren entzierroa izan zen, eta bi lagun geratzen dira ospitalean: horien artean, igandean adarkatutakoa.

Nuñez del Cuvillo ganadutegia 1995ean etorri zen estreinakoz, eta atzokoarekin hamabi entzierro egin ditu Iruñean.






berria
Asteazkena, 2023ko uztailaren 12a
www.berria.eus

Zakilixut © Olariagak




# «Sanferminen ekosisteman murgiltzen saiatzen naiz»

ATZEKOZ AURRERA


BERRIA

**Ainhoa Larretxea** • Gai jartzailea

Askotariko bertso jaialdiak gidatutakoa da Ainhoa Larretxea, eta, dioenez, sanferminetakoak franko maite ditu. Gai jartzaile gisa, ezinbestekotzat dauzka bai festei buruzko ezagutza, bai umorea.

**Uxue Rey Gorraiz** *Iruñea*

Bakoitzak nahi duen doinu eta neurrian goza ditzake sanferminak eta bota ditzake bertsoak; betiere, gai jartzaileak zehaztapenik egin ez badu. Ainhoa Larretxea (Bera, Nafarroa, 1996) oholtzan delarik, haren aginduei men egin behar. Hala ariko dira bihar Andoni Egaña, Bittori Elizalde, Julio Soto eta Onintza Enbeita. Sarasate pasealekuan izanen da, 19:00etan, Larretxea gidari.

**Zer tarterekin hasten zara bertso saioak prestatzen?**

Gustatzen zait bizpahiru aste lehenago hastea, baina aitortuko dut normalean bezperako arratsaldea izaten dela produktiboena.

**Biharkoarekin noiz hasi zinen?**

Hasi... orain dela bizpahiru aste. Iazko saioak ikusi nituen. Halere, baliteke berriz ere bezperan egitea lan gehien [irriak].

**Zein da lehenbiziko urratsa?**

Egitura zehazten dut; bertsolari bakoitzak zenbatetan eta zeinekin abestuko duen. Gero, ariketa bakoitzaren tonua erabakitzen dut, nolakoa nahi nukeen izatea.

**Zer gai dira jartzen zailagoak, umorezkoak ala serioak?**

Nire ustez, umorezkoak. Gizarte serio batean bizi gara, eta niri horiek kostatzen zaizkit gehien, eta erranen nuke gai jartzaileen arteko konbertsazioetan ideia hori askotan ateratzen dela: zer zaila den.

**Saioak txapelketa batekoak edo jai girokoak izan, zer neurritan aldatzen da zure lana?**

Txapelketa batean, azken batean, irakurri egiten duzu. Gehiago zara gidari bat, taldean eginikoa jendaurrean aurkezten duena. Jaietako saioetan, zurea da ardura osoa. Ongi atera, edo gaizki atera.

**Bakarrik bilatzen dituzu gaiak, ala eskatzen duzu laguntza?**

Normalean, bakarrik egiten dut. Halere, behin saioa osatuta, konfiantzazko kideren bati erakutsi ohi diot. Eta, hori bai, sanferminei buruzkoak direnean, Iruñeko lagunei galdetzen diet gaiei buruz.

**Zer gairi erreparatzen diezu?**

Gustatzen zait ahalik eta erreferentzia gehien sartzea Iruñeari buruz. Uste dut horrek funtzionatzen duela, bertsozalea ere sanferminetan dagoelako. Sanferminen ekosisteman murgiltzen saiatzen naiz.

**Aski da egunkarietako lerroburuak irakurtzearekin?**

Ez. Nik uste dut Iruñeko sanferminetako saioak prestatzeko Iruñean egon behar duzula, edo, behintzat, gutxieneko ezagutza bat izan, azalean ez gelditzeko.

**Zer ariketa mota ezin da faltatu?**

Ez nuke errango badenik ariketa jakin bat. Gustatzen zait seriotik hasi eta umore tonuan bukatzea. Kopla batzuk beti sartzen dira ongi.

**Bertsolari batek eskatzen badizu gaiak aurrez erakusteko, zer erantzuten duzu zuk?**

Egia erran, oraindik ez zait inoiz gertatu, baina ezetz erranen nioke. Gertatu izan zait galdetzea ea bakarkakoa jarriko diodan-edo, eta horrelakoei bai, erantzuten diet. Gaiei buruzkoei, inoiz ez.

**Haserretu zaizkizu inoiz?**

Jai giroetakoetan ez, baina bertso jaialdi normalen batean bai.

**Gai bat proposatzen duzunean, imajinatu ohi duzu zuk zer bertso botako zenukeen?**

Bai, eta nik uste dut gai jartzaile bezala inportantea dela jakitea gai batek zer ibilbide izan dezakeen eta aurreikustea zein diren ibilbide posible horiek, badirelako ibilbide batzuk igual nik hauspotu nahi ez ditudanak. Ni bai, saiatzen naiz imajinatzen. Gero, noski, bertsolariak gu baino aski hobeak dira, eta beti hartzen ditugu sorpresak.

**Diozunez, bertsolariak zuek baino aski hobeak dira. Askotan aditu dituzu horri buruzko zirikak?**

Beti esaten dute gai jartzaileak bertsolari frustratuak garela [irriak]. Ez dakit egia edo gezurra den; nik ez dut inoiz plazetan kantatu. Hortxe utziko dugu.

**Urtero zoaz sanferminetara?**

Beratarra izanda, urte anitzetan Lesakan izan naiz, baina Iruñea deskubritu nuenetik, saiatzen naiz egun batez edo bitan etortzen.

**Zer egun duzu maiteen?**

Ez nuke jakingo egun bakarra aukeratzen, baina txupinazoarena probatzeko dut oraindik ere.

**Udaletxe plazara sartu nahi duzu?**

Seguru itoko naizela, baina bai. Gustatuko litzaidake gaiteroak ateratzen diren unean hor egotea.

**LOTSABAKO**

**Sanferminak, Iruñean edo Lesakan?** Iruñean.

**Etorri zara inoiz bakero urdinekin?** Bai, baina orain jada zuriz jantzten naiz.

**Zer duzu zapian?** Deus ez.

**Txaranga edo elektrotxaranga?** Txaranga. Bueno, batukada ez den bitartean, edozer.